



Beasain jaietan

Gipuzkoako
kantu
txapelketa
Ataunen

Zegama-
Aizkorri
mendi
maratoia

Luis Mari
Jauregi
Jordaniako
maratoian



SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

ODONTOLOGOA



ERABATEKO

GURE INSTALAKUNTZAK ELBARRITUENTZAT

H O R T Z


ERABAT EGOKITUAK DAUDE, KLINIKAK SAN

K L I N I K A

INAZIO KALE BERTARA EMATEN DUELARIK

I N T E G R A T U A

Teknologia, profesionaltasuna eta arreta, zerbitzu bakar batean bateratuz, giro goxo batean, zerbitzurik hurbilena eskeiniz, dentistarekiko zure ikuspegia aldatuko dugu.



RPS144/02

**3URTEKO
BERMEA**

FREELANDER BERRIA NATURAZ GAINDIKO SEGURTASUNA

- 4x4 trakzio iraunkorra
- ABS + Balaztatze Presioaren Banaketa Elektronikoa (EBD)
- Trakzioaren Kontrol Elektronikoa (ETC)
- Aldapak Jaisteko Kontrola (HDC)
- Azken belaunaldiko motorrak

FUROLAN
4x4

Gipuzkoarako kontzesionario bakarra
Donostia-Hernani errepidea (Galarreta ondoan)
Telefonoa: 943 33 10 06

Goierrirako zerbitzua: ANZIZAR

Beasain-Zumarraga errep. • Telefonoa: 943 88 17 00



Freelander Td4 Manuala. Kontsumo konbinatua 7,6 l/100 km. CO₂ isurketak: 205 g/km

BEASAINGO LOINATZ JAIK



**BEASAINGO
UDALA**

Agurra:


Loinatz jaiak gertu, nire agur beroena beasaindar guztioi. Lehenengo aldiz agurtzen zaituztet Alkate naizela Beasaingo jaietan.

Senideekin eta lagunartean lasaitu ohi dugu barrena egunero. Bizimodu lanpetu honetan, beharrezkoak dira laneko tentsioak eta bizitzako kezkak kanporatzea eta elkarrekin jai giroan murgiltzea. Loinatz jaiak ospatzeko prestatu den egitaraua, aukera egokia da alaitasunez eta lagunartean egun bete batzuk pasatzeko.

Festen egitaraua prestatu dutenak gustuko jai-ekintzak antolatzen saiatu dira haurrentzat, gazteentzat eta nagusientzat. Talde eta elkarte ugari izan dira Udaleko Kultura ardura-dunekin batera aurkezten dizuedan festa-programa hau osatzen aritu direnak. Denei nire eskerrik beroenak.

Nire eta Udal osoaren izenean, guztiok animatu egin nahi zaituztet festetan parte hartze-
ra, izan ere, guztion partaidetzarekin baino ez baitugu sortuko benetako jai-giroa gure kaleetan.

PATXI PLAZAOLA Alkatea



**Ondo-ondo
pasa Loinatz
jaiak!!!**

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aitziber Murua, Aimar Maiz, Ion Muñoa, Pako Zubeldia eta Landarlan.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9, Oñati)

Tirada: 7.100 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Beasainen, maiatzaren 21ean Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketako saioa

Maiatzaren 28an Zarautzen finala jokatu aurretik, azken kanporaketa jokatu da Beasainen, gaur bertan, maiatzaren 21ean, Usurbe antzokian, arratsaldeko 4etan. Txikien mailan, taldeka lehiatuko dira Goierri-Urretxu eta Hernani taldeak. Handienen mailan, 8 bertsolariren artean, bi ataundar izango ditugu lehiatzaile: Aitzol Munduate eta Haitz Aierbe.

Bat-bateko bertsolari txapelketa jokatu aurretik, arratsaldeko 3etan, Beasaingo Andramendi ikastolan, bertsopaperetan parte hartuko duten lagunaren txanda izango da.

Ordubete beranduago, arratsaldeko 4etan, Usurbe Antzokian, Gipuzkoako Eskolarteko laugarren eta azken kanporaketa jokatu da. Txikien mailan, taldekako lana egin beharko dute. Bi talde lehiatuko dira: Goierri-Urretxu eta Her-

nani. Goierriko taldearen barruan Ainhoa Mujika beasaindarra eta Joseba Arrizabalaga idiazabaldarra lehiatuko dira.

Handienen mailan, berriz, bakarka aritu beharko dute. Zortzi bertsolari arituko dira lehiatzaile: Aitzol Munduate (Ataun), Haitz Aierbe (Ataun), Unai Gaztelumendi (Añorga), Naiara Arreseigor (Ibarra), Oier Aizpuru (Zarautz), Iñigo Gorostartzu (Berastegi), Aritz Garin (Billabona) eta Beñat Iguaran (Billabona).

Gai jartzaile lanetan Iñaki Apalategi beasaindar bertsolaria arituko da.

Txikien mailan, finalerako 4 talde sailkatuko dira eta handietan, 8 bertsolariri. Iazko irabazlea, txikietan, Zumaiako taldea izan zen eta handietan, Beñat Gaztelumendi. Argazkian, 2001ean Beasainen jokatu zen Eskolarteko Bertsolari txapelketako saioa.

Goierritarra Goierri kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

Herritarren Zerrendak 1.789 sinadura bildu ditu Goierrin

Maiatzaren 8ra bitartean Herritarren Zerrenda deituriko plataformak 1.789 goierritarren sinadura jaso zuen. Goierrin herriak bildutako sinadura kopurua duzue jarraian: Legorretan 54 sinadura, Itsasondon 27, Ordizian 307, Zaldibia 217, Beasainen 379, Lazkaon 222, Atauen 193, Idiazabalen 103, Seguran 197, Zegaman 70 eta Olaberrin 22.

Euskal Herri osoan 50.000 sinaduratik gora bildu dira eta sinadura hauen helburua, ekainaren 13ko Europako hauteskundeetara Herritarren Zerrenda plataforma aurkeztu ahal izatea da. Horretarako 40.000 sinadura bildu beharra zegoen. "Abertzale eta ezkertiarrek" osatutako plataforma da Herritarren Zerrenda.

Eraikuntza arloko greba

Maiatzaren 10ean hasita, eraikuntza sektorea greban dago. Goierrin erantzun zabala ari da izaten greba.

Merkatarientzat diru laguntzak

Merkataritzarako Laguntza Teknikorako Bulegoak jakitera eman duenez, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak urtero ematen dituen eta merkatariei zuzenduta dauden dirulaguntzak argitaratu ditu. Diru-laguntzak eskatzeko zenbait baldintza bete behar dira eta epe zehatzak ere badaude. Beraz, informazio gehiago jasotzeko 943160673 telefono zenbakia duzue.

Zirkoaren inguruko auzolandegia

'Euskal Udalekuak' elkartekoek, berrikuntza bat eskaintzen dute: Urdirotzen, gaztetxoentzako auzolandegia. Bertan, zirkoa gaia landuko da. Malabarak, akrobaziak, antzerkia, clowna, musika, eskulanak, eszenografia eta gidogintza... landuko dira. www.euskaludalekuak.org web orrian duzue informazio zehatza.

Gazte informazioko buletin elektronikoa, harpidedunentzat

Ostiralero, Gipuzkoako Gazte Informazioko buletina jasotzeko aukera dago, harpidedun eginez gero. Harpidetza



Goierriko herrietan Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aparteko Inbertsio Plana

Datozen lau urteetan Gipuzkoan egingo diren hainbat proiektu aurrera eramateko Aparteko Inbertsio Plana aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 140 milioi euro inbertituko ditu 129 jarduera programatan. Goierriko herriei dagokienez, ondorengo proiektu nagusi hauek lagunduko ditu.

Beasainen, Antzizar kiroldegian egitekoak diren igerileku berriak diruz lagunduko ditu Foru Aldundiak. Ezkio-Itsason, Ezkio elkartea eta Ezkiorako sarbideak egokituko dituzte. Lazkaon, zaharren egoitza berria eraikiko da. Ordizian, Altamira kirol gunean eta suhiltzaileen parkean inbertituko du. Seguran eta Zegaman, bi herrien arteko errepidea zabaldu eta hobetzeko ere dirua inbertituko du Foru Aldundiak. Otzaurterako bidean ere hobekuntzak egingo ditu. Zaldibian, azkenik, Arkakako Arrantza Eskola sortuko da eta Zaldibia-ko saihebidetako obrak ere egingo dira.

egiteko modua, Ordiziako Gazte Informazio bulegoan aurrera dezakezue, Barrenan.


Haur eta nerabe gaietarako eskualdeko taldea, Seguran

Gipuzkoako Foru Aldundiak, haurren arrisku eta babes gabekia egoerei erantzuteko gaitasun handiagoa lortzeko helburuarekin, Haur eta Nerabe Gaietarako Eskualdeko Taldeak sortu ditu. Goierrin, Segurako aterpetxean egongo da kokatua eta bertan, Hernanialdea eta Tolosaldeko herriak hartuko ditu.

Maskota berria aurkeztu da Agenda 21ek Iraunkortasunaren 12 irizpideak

Lurraren bizibaldintzak hobetzeko, Iraunkortasunaren 12 irizpideak azalduko ditu Agenda 21ek, GOIERRITARRA aldizkarian, datorren aletik aurrera. Ondorengo argazkietan aurkezten den maskotak azalduko ditu irizpide horiek.

Aurreko alean kaleratu ziren 12 irizpideak gogoratuko ditugu jarraian: baliabideen erabilera egokia egitea; inguruneak berritzea; duen berezko ahalmena ez gaitzitzea; bioaniztasuna baloratu eta babestea; lurzoruen erabilera iraunkorra izatea; mugigaitasuna eta irisgarritasuna bermatzea; tokiko baliabideak erabiltzea eta ekonomia dibertsifikatzea; soldata duina izango duen lana lortu ahal izatea; oinarrizko zerbitzuak eskura izatea; gizarte mailako zuzentasunaren eta justiziaren hazkundea; bizi-kalitate egokia bermatzea; gizarte inplikazioa eta informazioa lortzeko bidea bermatzea; eta elkar-tsuna esparru orokorreko arazoaren aurrean.



Zumalakarregi museoaren ekimenez Museo eguna ospatzeko Tirabira jokoa egin da Ormaiztegin

Maiatzaren 18an, Nazioarteko Museo egunean, 'Tirabira Ormaiztegin' izeneko jokoa egin zuten Ormaiztegin, Zumalakarregi museoak antolatuta. Tirabiran parte hartu zuten haurrak, bi taldetan banatu zituzten, karlistak eta liberalak. Herriko plazan barrenan hainbat proba gaitzitu behar izan zituzten: artzainak gazta egin, sukaldariak patata-tortila prestatu, bertso-lariak bertso abota eta abar. Aurtengo gaia XIX. mendeko gertakizunei ingurukoa izan zen eta partaideek garai hori benetan

ezagutzen ote duten frogatu behar izan zuten. Proba guztiak gaitzitu, altxorren bila aritu behar izan zuten bi taldeek. Jokoa amaitu ondoren, freskagarri banarekin amaitu zen jokoak.

Bi argazkietan, iazko partehartzaileak azaltzen dira. Karlistak eta liberalak.



Abertzale eta ezkertiarren Herritarren Zerrenda

Donostian 2004ko apirilaren 24an Miramar Jauregian batzar irekian elkarturiko euskal herritarrak, Euskal Herria zatitzen duten mugen gainetik eta gure artean izan ditzakegun ezberdintasun politikoak alboraturik, euskal jendarte osoari bertan harturiko erabakien berri eman nahi diogu:

- 1.- Datorren ekainaren 13an izango diren Europar Hauteskundeetan Europako herri zaharreneko euskal herritar garen guztiok hauteskunde hauetan parte hartzeko eskubidea ezezik, bertan presente egoteko beharra dugula pentsatzen dugu, eraikitzen ari den Europar Batasun berriaren ereduak Euskal Herriaren etorkizuna baldintzatuko duelako.
- 2.- Datorren ekainaren 13an euskal herritar guztiok, Euskal Herri osoan, eta egun berdinean bozkatzeko aukera historikoa dugula ikusita, Europa osoaren aurrean "Euskal Herria Europako Nazioa" dela frogatzeko hauteskunde hauek erabili behar ditugula pentsatzen dugu.
- 3.- Horrexegatik, "Bestelako Europa bat posible dela" pentsatzen dugun Euskal Herriko herritar abertzale eta ezkertiar guztion lana elkartuz eta Europar Hauteskunde hauetan aukera nazionala indartzeko as-

moz, Euskal Herri osoan 'Herritarren Zerrenda - (HZ)' izena izango duen abertzale eta ezkertiar guztien hautagaitza elektorala osatzea erabaki dugu.

- 4.- 'Herritarren Zerrenda - (HZ)'k ez du euskal jendartearen dauden beste eragile politikoak ordezkatze-ko inolako borondate politikorik, jarrera honen alde dauden euskal herritarrei aukera irekia eskaintzea baizik. Ildo horretan beste aukera guztiak errespetatuko ditu.
- 5.- 'Herritarren Zerrenda - (HZ)'k Europar Batasun berriak baldintzatuko dituen sektore sozial ezberdinetako Euskal Herri oso-ko 64 lagunez osaturiko hautets-zerrenda nazionala aurkeztuko du Europar Hauteskundeetan. Hauetarik 54 Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrak izango dira, Estatu espainoleko barruti elektorolari dagozkionak. Gainerako 10ak, Estatu frantseseko Grand Sud-Ouesteko barruti elektorolari dagozkionak izango dira, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako euskal herritarrak.
- 6.- 'Herritarren Zerrenda - (HZ)' osatzeko firma kanpaina antolatu da Euskal Herri osoan. Izan ere, Estatu espainoleko legeriak honelako herri hautagaitza osatzeko milaka firma legal eskuratzea eskatzen baitu. Estatu frantziarrak

horrelakorik eskatzen ez badu ere, sostengurako izenak jaso dira. Gauzak horrela, maiatzaren 8a arte, zazpi lurraldeetan burutu den firma kanpaina bilketa erraldoian, 50.000 sinaduratik gora bildu dira. Goierrin, 1.789.

- 7.- Gauzak horrela, datorren ekainaren 13an, Euskal Herri osoan, zazpi herrialdeetan, 'Herritarren Zerrenda - (HZ)' izena duen euskal hautagaitza nazionalari bozkatzeko aukera izango dute euskal herritar guztiak, bi papeleta elektoralean.

Aitor Urkiola (Olaberria)
'Herritarren Zerrenda - (HZ)'

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

Mehatxu berria Aralarren

Aurrekoan, Lareoko urtegi ingurura joan ginenean, ikusi genuen Ataungo udalerriko Marumendi inguruan dagoen pagadi zabaliko pago handi guztiak markatuta zeudela, gehienak aizkorakadaz azal zati bat kenduta eta gutxienak (15-20tik bakar bat) spray arrosa bidez margotuta. Horrek esan nahi du, esperientziak erakusten digunez, margotuak mantentzeko direla eta beste guztiak botatzeko. Pagadi hau orain dela urte gutxi bakandu zen eta bertan adin berdintsuko pago gazte mardul barreiatuak daude eta azpian landare txiki ugari dator.

Marumendi Aralarko Parke Naturalaren barnean aurkitzen da eta hau Europar Batasunaren Intereseko Leku 'LIC' izendatuta dago eta, beraz, parke naturaleko Antolaketa Planean eta Europako Habitat Arteztaranean ezartzen diren arauen menpe. Bi dokumentu horien mami garrantzitsuena berezko habitat eta espezien kontserbazioa eta, ahal den neurrian, hobekuntza da.

Baso horretako zuhaitz handi ia guztiak botatzen direnean urte askotarako baso egitura desagertu egingo da eta bertako inguru-baldintzak erabat aldatu. Horrek esan nahi du basoko espezie asko bertatik joan edota desagertu egingo direla esparru handi horretan. Gainera, pagadiaren egitura



epe oso luzera baldintzaturik geratuko da, adin berdineko zuhaitzek bultzatzeak sinplifikazio izugarria ekarriko diolako ondorengo belaunaldietan, bizidun-aniztasunaren kalterako.

Iruditzen zaigu horrelako sarraski bat egin aurretik ongi aztertu beharko liratekeela horrek inguru naturalean izango dituen eraginak, ez dadin gertatu sortzen diren kalteak onurak baino handiagoak izatea, eta, are gehiago, pago egurra aspaldiko urteetako egoera merkeenean dagoenean. Gure ustez, horrelako basoak kontserbatzen dituzten udalerriek nolabaiteko laguntza bat jaso beharko lukete komunitateari emandako zerbitzu horren truke.

Labur esanda, parke natural eta beste leku babestuetako aberastasun handiena ongi kontserbatutako naturan daukagu eta ondorioz, ez dezagun, horrelako guneen funtsezko helburua alde batera utziz, hori hondatu zalantzazko etekin ekonomiko bat ateratzeko Landa inguruetakoko etorkizuna inguru natural ongi kontserbatuan dago eta ez hainbeste, eta leku babestuetan guxtiago, mendiaren ekoizpen intentsiboan.

Landarlan Elkartea

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

LIBURUA

✓ **'Bizikletan ibiltzeko gidaliburua'**, Kataluniako Bizikleta Erabiltzaileen Koordinatzaileak, 2002. Euskarara egindako itzulpena EAEko Hiri Txirrindularien Elkarteek (Bilboko Biziz Bizi, Donostiako Kalapie eta Gasteizko Bizikletaroak) burutu dute, Eusko Jaurlaritza, Bilboko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Gidaliburu honetan bizikletak dituen abantaila buruzko informazioa eskaintzen da, euren eguneroko joan-etorrietarako inoiz erabili ez duten pertsona guztiek hau erabiltzen ahalegindu daitezkeen. Horren berri, www.bizizbizi.org web orrian.

JAKIN BEHARREKOA

✓ **Bizikletaz ibiltzeko legedia:** zirkulazio lege berriak bizikleta erabiltzaileak kaskoa herri eta hiriz kanpoko errepideetan erabiltzera behartzen ditu, inoiz ez oso aldapa gogorretan edota bero ikaragarria denean. www.conbici.org/legislacion/2004_resumen_valorativo.php.

✓ www.gipuzkoa.net orriaren barnean aurkitu dezakegu **Gipuzkoako sagarrondoan izurri eta gaitasunei buruzko xehetasunak**. Bertan sagarrondoari buruzko informazioa, aurkibidea, izurri eta gaitasun hauen kontrola, hiztegia eta argibide batzuk aurki ditzakegu. Sagarrondoak izanez gero komenigarria izango litzateke begiratu eta eskura izatea. Argazki eta guzti azaltzen baitira bakterio, birus, intsektu, onddo, nematodoak... sortzen dituzten gaitzak. Udaberri garai hau oso arriskutsua izaten da eta.



bizkuntz eskubideak

denon konpromisoa

Ekainak 5: euskaltzale guztiok Iruñeara! *Hizkuntz eskubideen aldeko aldarrikapena egingo da*

Kontseilua Euskal Herri mailan aurrera eramaten ari den konpromiso bilketaren kanpainaren barruan, ekainaren 5ean, Iruñean, manifestazioa egingo da, 'Hizkuntz eskubideak, denon konpromisoa!' lelopean. Ordiziako Euskalgintzak (Hitzaro, AEK, Ordiziarrek gera plataforma, Jakintza Ikastola eta Goierri Lanbide Eskola), manifestaziora joateko deia egiten die ordiziarrei eta goierritarrei. Autobusa antolatuko da, egun horretarako. Hitzaro Euskara elkarteak hartu behar dira txartelak.

Kontseiluaren esanetan, "manifestazioa egiteko arrazoiak soberan ditugulako eta gauzak nola doazen ikusita, Kontseiluako zuzendaritzak manifestazioa egitea erabaki du". Manifestazio honen bidez, Kontseiluak euskararen normalizazioa eta hizkuntz eskubideak sustatzeko eta bultzatzeko konpromiso dinamika indartu nahi du. Kontseilua hiru arlotan lan egiten ari da konpromisoen bila: alderdi politikoen eta sindikatuen, enpresen eta entitateen, eta herritarren arloetan.

Aipatu bezala, Iruñean egingo da manifestazioa,

ekainaren 5ean, arratsaldeko 5etan. Ordizian azkeneko arlo honetan ari dira lanean apirilean hasita, Ordiziako Euskalgintzak 'Hizkuntz eskubideak, denon konpromisoa' kanpainarekin bat egin baitu. Era honetan, lerro hauen bidez, manifestaziora joateko deia luzatzen die ordiziarrei, eta orokorrean goierritarrei.

Iruñeara joateko autobusa antolatu da Ordizian. Arratsaldeko 3,30etan abiatuko da, Arboledatik. Hitzaron eta Barrenan eros daitezke txartelak, maiatzaren 24tik ekainaren 2ra bitartean. Joan-etorria, 6 euro kostako da.

Konpromisoak biltzeko mahaiak ostegunetan eta larunbatetan

Norbanakoen konpromisoak biltzeko mahaiak jarriko dira aurrera begira ere, ostegunetan eta larunbatetan, Barrenan. Ostegunetan, arratsaldetan, 6,30etatik 8,30etara; larunbatetan, goizez, 11etatik 1era. Kanpainaren inguruko materiala, ere bertan egongo da salgai.



Jakintza Ikastolako ikasleek, Euskaraz Bizi programaren barruan Txan magoaren emanaldia izan zuten urte hasieran.

Jakintza Ikastolako ikasleek ere euskararen aldeko konpromisoa hartuko dute

Jakintza Ikastolako ikasleek, Euskaraz Bizi programaren barruan eta Kontseiluaren kanpainarekin bat eginez, euskararen normalizazio bidean urrats berriak ematen hasi dira, bakoitzak, euskararen aldeko konpromisoak hartuz. 10 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzendutako kanpaina hau irailean amaituko bada ere, lan ildo iraunkor baten barruan kokatuko da euskararen aldeko konpromiso biltzea. Jakintza Ikastolakoei kanpainaren zergatia edo helburua azaldu digute: "jaiotzatik datozkigun hizkuntza eskubideak egunero urratzen dira, beraz kanpaina honetan horretaz jabetzea eta horri aurre egiteko konpromisoak hartzea beharrezkoa dela uste dugu".

Kanpaina hiru saiotan batuko dute. Lehenengo saioan Hizkuntza eskubideak zer diren ikusiko dituzte, eta eskubide hauek noiz eta non urratzen diren. Jarraian, norberaren jokiera eta gizartearena nolakoa den ikusiko dute eta norberak zer egin dezakeen aipaturiko urraketak konpontzeko. Azkenik, egoera aldatzeko zereginetako bat konpromisoa hartzea izango da. Konpromiso zerrenda ikasleen eta gazteen neurriara egokitutakoa da.



GARMENDIA

Teilak eta teilatuak

*Egur tratamenduak
autoklabean*

disenat: acymultimedia




TEILATUAK



ZUREZKO EGITURAK



HODIAK



EGUR TRATAMENDUAK

Mallutz Poligonoa, 25 - 26 Pab. | 20240 ORDIZIA | Tel. 943 16 10 32 | Faxe. 943 16 08 42
www.garmendiatejas.com | www.tejasgarmendia.com | garmendia@garmendiatejas.com

LAZKAO

Etxebizitza unifamiliarra:

- Lorategia
- Eguzkitsua
- Goi mailako materialak




943 16 10 32



WWW.ACYMULTIMEDIA.COM

asteartetik ostiralera
eguerdietan irekita
aurretik txanda eskatuta



Zelata kalea 37, behea Beasain
Tel 943 88 02 97

extensio berriak
deskonexio mozketak
kolorea hirukietan
kolore ekologikoa
estetika
mikropigmentazioa
manikura/ pedikura
aurpegiko pilingak

Astelehena 9:00-12:30 eta 15:00-17:00 / Asteartea / Asteazkena / Osteguna / Ostirala 9:00-17:00 / Larunbata 7:30-13:00

BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

- Euskadi Irratian musika aurkezten, abentura aurkezten eta futbol partiduak ematen entzun zaitugu azken al-dian. Zer duzu gustukoen?

Hiru arloak dira zeharo ezberdinak eta hor dago erronka. Denak ditut gogoko eta une honetan ez nago halabeharrez gustuko ez dudan lanik egiten.

- Kazetari bezala zein da zure ametsa?

Egiten dudanarekin konforme egotea eta disfruta-tzea.

- Zein musika mota edo talde gustatzen zaizu?

Musika mota ia gehienak gustatzen zaizkit, zein ez zaidan gustatzen pentsatzen jarri beharko nuke.

-Parrandarako musika bat:

Tokia eta giroaren arabera. Eguerdian erromeri gi-roan trikitia, gau partean musika elektronikoa.

-Gonbidatuak entzutean, inbidiarik gehien sentitu duzun abentura:

Asko dira. Bat esatekotan... Txileko kostaldean bi gonbidatu baleetatik gertu ibili zirenekoa.

-Futbol partiduak emateko garaian zer da zailena?

Jokaldi baten jarraipenean galdu eta zer gertatu den jakin gabe isilik ez egotea.

-Golak kantatzeko entsaiatu egin behar al da?

Probak egitea ondo dago, tokatzen denean nola egin jakiteko.

-Bihotzeko futbol taldea zein duzu?

Erreala. Nahiz eta orain oso haserre naukan.

-Dantza munduan urteak daramazkizu. Zer ematen dizu dantzak?

Talde giroa, bidaiatzeko aukera eta zure herriaren nortasuna diren tradizio eta ohiturei jarraipena emateko aukera.

-Plazetan gero eta dantza gutxia-go egiten omen da. Zuk ere bai?

Ez naiz dantza egitera irtetzen den lehenetarikoa, baina girotu ezker azkenean egiten dut.

-Dantzarik gogokoena?

Zuberoako dantzak dira ikusgarriak, edalontziaren gainean egiten direnak, maskaradetako-ak. Muriska eta jauziak egiteko duten berezko erraztasuna eta sormena oso erakargarriak dira.

-Dantzarako eskenatokirik gogokoena?

Edozein. Momentuak eta aldarreak egiten du berezi unea. Toki zeharo ezberdinetan egin du-gu dantza, zelaietan, hartxintzarrean, tranpal-doetan, antzokietan... Jendeak ere eragina du, gustura sentiarazteko.

-Euskal dantzak ikastea modan al dago?

Ez dakit nik inoiz modan egon denik. Bertsola-ritzaren kasuarekin ez nuke konparatuko. Baina hor egon da beti. Eta euskal dantzetan ibili den edonori arrastoa uzten dio. Fisikoki nahiz hezkun-tzari dagokionez. Begiratzea besterik ez dago alar-de egunean hainbat urtetan dantzarekin harrema-nik izan ez duen zenbat jende ilusioz beteta nola parte hartu zuen.

-Beasaingo jaietako egunik edo ekitaldirik gogoena?

Astlehena. Egunik errotuena da. Goiz-goizetik hasita bezperan zintzo ibili ezker, prozesioa, fut-bol partida, hamaiketako on bat, koadrilaren baz-karia... egoeraren arabera egun polita antolatu dai-teke lagun talde giroan.

-Festetarako plan bat:

Lagunekin egin daitekeen edozein.



Mikel Apaolaza

(Kazetaria eta dantzaria)

A HOLKULARITZA GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

Jai zoriontsuak denoi !

☎ 943 16 00 65 Faxa: 943 16 03 59
J. M. Iturrioz, 6 BEASAIN

IBAI-ONDO AROTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaitainondoak

multisac

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Loinatz jaiak Beasainen: lehenengo asteburua

Maiatzak 21, ostirala:

12:00etan: Loinatz jaien hasiera danbateko ofizialarekin.

16:00etan: Gipuzkoako Eskolarteko 24. bertsolari-txapelketako kanporaketa, Usurbe antzokian.

16:30ean: Aldibereko Xake-txapelketa, Loinazko San Martin plazan.

17:00etan: Barraka-feria eta ikuskizunen irekiera ofiziala.

18:30ean: Erretiratuaren etxe-ko tailerrean egindako eskulan-erakusketaren inaugurazioa, Erretiratuaren etxean.

19:00etan: Erraldoi eta Kili-kien irteera txistulariekin eta Musika Eskolako bandarekin.

20:30ean: Musika Eskolako 'Sugan' taldearen emanaldia.

22:30ean: Rock kontzertua, Gipuzkoa plazan.

22:30ean: Mariren jaitsiera, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: Goierriko Erraldoi eta Kiliki-taldeen irteera, Koskola txarangak eta Golo-ka taldeak 'Zombiak' ikusizunarekin lagunduta.

23:00etan: Latindar dantzen eta koreografia modernoaren erakustaldia eta animazioa,



Natalia eta Fermin dantza-taldearekin, Bideluze plazan.

Maiatzak 22, larunbata:

08:00etan: 'Beasain jaietan' urtekaria salgai jarriko da.

09:00etan: Txistularien Udal-bandaren goiz-eresia.

10:00etan: Meza, Loinazko Andre Mariaren ermitan.

12:00etan: Umeen danborrada, Igartzatik abiatuta.

15:00etan: Graffiti-erakustaldia, Zubiondo plazan.

16:00etan: IV. Loinatz Eskuzko pilota-txapelketa, Batzokiko pilotalekuan.

17:00etan: Haurrentzat tailer-rrak eta ludoteka 'Detraka' taldearekin, Joan Iturralde

plazan.

18:30ean: Danborradako konpainien irteera herriko kaleetan zehar.

19:00etan: Koskola txarangaren irteera.

19:00etan: 'Beasain Hiria' izeneko argazki-lehiaketako erakusketa eta sari-ematea, Usurbe antzokiko erakusketa aretoan.

22:30ean: Danborradaren ibilaldi handia herriko kaleetan zehar.

00:00etan: Danborradako konpainien bilkura eta azken joaldia Koskola txarangarekin eta Musika Eskolako musika-bandarekin.

00:00etan: Euskadi Gaztea

irratia Disko-festa 'Joseina Etxeberrarekin', Bideluze plazan.

00:30ean: Nafar jotzen jaialdia 'Raices Norteñas', Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 23, igandea:

10:00etan: XXXIV. Loinazko San Martin nazioarteko xake jokaldiak, Alfil Xake elkartearen egoitzaren parean.

11:30ean: Beasaingo IV. Dantza topaketa: dantzarien ibilaldia auzoetatik abiatuta.

12:00etan: 'Barea' marrazki tailerra umeentzat.

12:00etan: Herri-kirolen jaialdia, Gernika pasealekuan.

12:30ean: Beasaingo IV. Dantza topaketa: taldeen bilkura Gernika pasealekuan eta ondoren ibilaldi nagusia.

12:30ean: Kale-antzerkia: Los Doryphores, Zubiondo plazan.

13:00etan: Udaltzatzen sokadantza, Loinazko San Martin plazan.

18:00etan: Roller, Skate eta Break dance taldeen erakustaldia, ondoren jaialdia, Igar-tza Oletako skate parkean.

AK
ANDREAK

jantziak - osagaiak

TAILAK 60-a ARTE

Tel.: 943 16 16 72
Andre Mari, 1
BEASAIN

*Gurutze-puntua, puntu
erdia eta artiletan
bereztasuna
Gai hauen ikastaroak
ere ematen dira*

Labores Otea

*Bordatuak eta arropa
konponketak*

www.laboresotea.com
Oriamendi, 19 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN

Jai gonizituak denor!

Oiarbide

Oinetakoak

San Inazio, 14
☎ 943160434
BEASAIN

Laskurain, 12
☎ 943653786
TOLOSA

MIRENTXU

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK

Festak ondo pasa!

Kale Nagusia, 1
Nafarroa Etorbidea, 7
BEASAIN

☎ 943 88 14 57
☎ 943 88 04 55

18:30ean: Besaingo IV. Dantza topaketa: euskal dantza-taldeen dantza-saioa, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Koldoren trikiti-xa-eskolako ikasleen irteera herriko kaleetan zehar.

19:30ean: Kale-antzerkia: Les Doryphores, Gernika pasealekuan.

22:30ean: 'Oria' txarangarekin Igartza-Oletara igoera su festa ikustera.

23:00etan: Su-festa.

23:15ean: 'Oria' txarangarekin irteera Igartza-Oletatik, su-festaren ondorengo jaitsiera alaituz.

23:30ean: 33 bira/ minutuko, Loinazko San Martin plazaren azpiko plazape estalian.

Maiatzak 24, astelehena:

08:00etan: Udaleko Txistulari-bandaren goiz-eresia.

09:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen Baselizara, txistulari eta dantzariarekin. Jarraian meza nagusia.

10:30ean: Erromeria, usadiozko taloak, erroskilak, odolkiak eta barraskiloak dastatuz, Loinazko San Martinen baseliza inguruan.



11:30ean: Lagun-taldeen arteko XXVIII. futbol-txapelketako finala, 'Oria' eta 'Lagunak' txarangek alaituta, La Salle-San Jose ikastetxean.



13:00etan: Lagun-taldeen irteera 'Oria' eta 'Lagunak' txarangek alaituta.

16:00etan: Umeentzako parkea, puzgarri eta bestelako erakargarriekin, Urbialde plazan.

18:30ean: Lagun-tadeen bilkura eta jaitsiera 'Oria' eta 'Lagunak' txarangek lagun-duta, Barrendain plazatik.

19:00etan: Dantzaldia 'Egan' taldearekin, Bideluze plazan.

19:30ean: San Inazioko lagun-taldea 'Oria' txarangarekin igoko da Erretiratuen

etxera.

23:00etan: Dantzaldia 'Egan' taldearekin, Bideluze plazan.

Maiatzak 25, asteartea:

10:00etan: Kalejira Txistularien Udal-bandarekin.

10:00etan: Urteroko azoka bereziaren hasiera: barazki-lehiaketa Loinazko San Martin plazan; azienda eta hegaztien erakusketa, Joan Iturralde plazan; talo-dastaketa, Zubimuzu plazan; eta artisau-azoka, Zubimuzu plazan.

11:00etan: Umeen sokadantza, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Trikitilarien joaldia, Loinazko San Martin plazan.

12:45ean: Herri-kirolak, bertsolariak girotuta, Loinazko San Martin plazan: Iñaki Azurmendi aizkolariaren erakustaldia eta Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsolariak.

19:00etan: Helduen sokadantza, Loinazko San Martin plazan.

19:30ean: Bertsolarien saioa, Loinazko San Martin plazan.



Jokin Telleria

MARKETERITZA
eta ARTEDER
MATERIALA

www.xunaiartea.com
xunaiartea@xunaiartea.com


943 16 23 44

Esteban Lasa, 2 C

BEASAIN



gorroategia - pasteleria
www.julki.com




beasaingo
MARTINTXOAK
Gozatuz gozatu - Beasaingo zaporea



www.segurakotarta.com

tel 943 88 82 37 Kale Nagusia, 11
C.P.20.200 Beasain - Gipuzkoa



Bere tailerra.
Audiometria.
Bista-kontrola.
Begietao tentsio-neurketa.
Ukipen-lenteen egokitzapena.
Osakidetzarekin hitzazamendutako optika.
www.nagusioptika.com

Kale Nagusia 10
20200 Beasain
T. 943 161 999

Loinatz jaiak Beasainen: bigarren asteburua

Maiatzak 28, ostirala:

19:00etan: Erraldoi eta Kili-kien irteera, Txistulariekin eta Musika Eskolako banda-rekin, Loinazko San Martin plazan.

22:00etan: Partaideen eta Laguntzaileen afaria, Beti-Bizi elkartearen.

22:00etan: Kale-antzerkia: Markelñe taldearen 'D.S.O.' ikuskizuna, Zaldizurreta plazan.

22:00etan: Amateurren pilota partiduak, Antzizar kiroldegian: Agirre-Esnaola (Beasain) Agirre-Biteri (Antzuola); Amundarain-Mujika (Beasain) Ulazia-Loiola (Elgoibar).

23:00etan: Saloiko dantzen eta balet-dantzen erakustaldia, Dantzaki eta Galaren eskutik, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 29, larunbata:

10:00etan: Txistularien Udál-bandaren goiz-eresia alaia.

10:00etan: Elkarteen arteko Sukaldaritza-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

11:00etan: Erretiratuentzako Toka-txapelketa eta Igel-txa-



pelketa, Zaldizurreta kaleko terrazan.

13:00etan: Elkarteen arteko Sukaldaritza-lehiaketan presatutako jakien aurkezpena, Loinazko San Martin plazan.

16:00etan: LIV. Loinatz txirrindulari-proba amateurrentzat.

16:00etan: Gazteen arteko Xake-txapelketa, Murumendi ikastetxean.

18:30ean: Mozorrotuen bilkura eta ibilaldia 'Detraka' taldeak eta 'Oria' txarangak alaituta, Barrendain plazatik.

19:00etan: Umeentzako dantzaldi girotua 'Detraka' talde-

aren 'Zirkus Mirkus' ikuskitunarekin, Joan Iturralde plazan.



19:00etan: 'Oria' txarangaren irteera herriko kaleetan zehar.

22:30ean: Francisco Rivelles bere mariatxiarekin, Loinazko San Martin plazan.

23:45ean: Dantzaldia 'Ataca' orkestrarekin, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 30, igandea:

09:00etan: Iturengo Aurtizko zanpantzarren esna-deia.

11:30ean: Tolosako bandarekin kalejira.

12:00etan: Erakusleihen lehiaketako sari-banaketa, Bareak elkartearen.

13:00etan: Tolosako bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

18:00etan: Dantzaoketa eta play-back-a, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: VIII. Dantza libreko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Herri-kirolen jaialdia, Gernika pasealekuan.

19:30ean: Kale antzerkia: Trapu zaharra taldeak 'Elvis hoa jada' antzezlan eskainiko du, Bideluze plazan.



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN



MARGOGAI

✓ Pinturak
Dekorazioa - Industriala

✓ Tresnak
✓ Makineria

Tel./faxa: 943 88 65 63
Oriamendi, 32

BEASAIN

Tel./faxa: 943 88 22 93
Laskaibar 1-1



HORTZ KLINIKA


CAMPAGNOLE Doktorea
Zirujau dentista

473 zkl. kolegiatua

Odontologia, haur eta helduentzako ortodontzia, periodontzia
eta hortz inplanteak jartzen ditugu.

Jai zoriatsuak guztioi!

Nafarroa etorbidea, 8 - 1.A BEASAIN ☎ 943 085 229



Jai zoriontsuak!! Mirés Argazkia
 Mirés Argazkia 943 882525 BEASAIN



x i o r

i l e a p a i n d e g i a
 9 4 3 8 8 2 3 4 0

Jai zoriontsuak!!!
Jai zoriontsuak!!!
Jai zoriontsuak!!!



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 **LAZKAO**
toldosagustin.com
e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Jai zoriontsuak denoi!

berriz

BEASAIN

DONOSTIA


Ordizia eta Lazkaoko alkateak izango dira Beasainen

Udal-agintarien sokadantzak:

eskualdeko herriak elkarlotuko dituen soka

Zazpi urte dira, Beasaingo udaleko alkate eta zinegotziek, agintarien sokadantzaren ohitura berreskuratu zutela. Loinatz igandean, urtero, alkate-zinegotziak elkartzen diren sokaren eta dantzaren bueltan. Aurten berrikuntza bat izango da: eskualdeko herriak elkarlotuko dira, Iztueta zaldibiarren deskribapenari jarraituz.

Agintarien sokadantzak, Gipuzkoako udal-ordezkariek sokaren sinboloa erabiliz herriko plazagunean gauzaten zituzten protokolo koreografikoak dira. Goierrin, dantzaren lotura-ekintza hau, ez zen udalerrri mailara mugatzen, eskualdeko herriak elkarlotzeko ere balio izaten



Sokadantzen bidezko loturak, Iztuetaren arabera (1824).

baitzuen. Sokadantzaren bidez, geografia eta gizarte oso bat lotzen zen, herri guztiak anaikidetasun-soka sinboliko batean korapilatuz.

Iztuetak 1824an honela idatzi zuen sokadantzaz: "Gi-

zon dantza ondoso au zeñ gogoangarria dan obeki adierazotzeko, nai dizutet azaldu, beraren beste eginbide miraritsu bat ere, zeñarekin menekiatsu edo obekiatzen duten Gipuzkoako erri leñargitiak beren godartarien

egunetan, bata bestea. (...). Beasañen, Loinatz domekaz, aurrengo egingo du Billa-frankakoak, eta bigarrena Lazkaokoak."

Orain zazpi urte, Beasaingo udalbatzak, ohitura hau Beasain herrian berreskuratu zuen, eta urtero-urtero, Loinatz igandean, alkate-zinegotziek osatutako soka ateratzen da plazara. Aurtengoan, eskualde-mailako urrats esanguratsu hori eman eta dagozkion auzo-herrietako ordezkariekin lotuko da, orain ia bi mende Iztueta zaldibiarrek deskribatu zuen bezala. Honela, Ordiziako eta Lazkaoko alkateek Beasaingo udal agintarien dantza-sokan parte hartuko dute, errituala bere osotasunean berreraikiz.

Berreskurapen hau, 25. urteurrena ospatzen ari den Aurtzaka dantza-taldearen ekimen eta bultzadari esker gauzatuko da.



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Ofariak
- Enmarkazioak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 J.M. Iturrioz, z/g
TOLOSA BEASAIN

Festa onak
pasatu!


Aranburu
OINETAKOAK

☎ 943 88 01 27
Kale Nagusia, 36 BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA



Mertzeria: joste-lanak, abalorioak, esku-lanak, etxeko arropa, ahurrak, ehunak...

Joste makinen salmenta
eta konponketa

LINUE ZEGAMAKO artisau
ehungintza

Bordatu eta konponketak
egiten ditugu.



Tel.: 943 085 116 7 647 628 187
Esteban Lasa, 3 BEASAIN

Goimusic diskoetxea: metal musika Beasaindik mundura

Beasaingo Senpere merkatalguneko 38. lokalean izan gara, Goimusic diskoetxearen egoitzan, beraien lana gertuagotik ezagutzeko asmoarekin. Duela lau urte Alberto Vazquez eta Josean Moranek sortu zuten Goimusic.

Lau arlotan banatzen da Goimusic diskoetxearen lana: metal soinuaren inguruko produkzioa merkaturatzea; 'Metal sound' katalogoaren bidezko salmenta; 'A Sangre y Fuego' aldizkaria; eta Goimusic zigilua.

Iruñe Etxeberria segurarra bertako langileetarikoa bat da eta berak eman dizkigu Goimusic diskoetxeari buruzko xehetasunak.

Metal soinua merkaturatzen

Heavy metal, death metal, gothic, metal, pagan musika motetan espezializatutako



Goimusic-en zazpi langile ari dira lanean. Goierritarrak hiru dira, Angel Vazquez eta Iruñe Etxeberria segurarrak eta argazkian atera nahi izan ez duen Jesus beasaindarra. Gainerakoak, gasteiztar bat, bi kanariar eta galiziar bat ari dira Goimusicen. Argazkian, hiru ageri dira: Iruñe Etxeberria eta Angel Vazquez segurarrak eta galiziarra.

diskoetxea da Goimusic. Batez ere, Europa iparraldeko herrialdeetako taldeen zigiluen eskubideak eskuratu eta Espainiar Estatuan eta Portugalen saltzen ditu cd-ak Goimusic-ek.

Zigilu dezenteren eskubi-deak ditu Goimusic-ek: Spinefarm, MTM, Frontiers, Listenable, Hammerheart, Hall

Of Sermon, Scarlet, Lion Music, Transmission Records, Cold Blood Industries, Black Lotus, Rising Sun, Last Episode, CCP, Metal Mind Productions, Osmose, DSFA, Diehard eta Northwind Records.

Alberto Vazquezek urte asko daramazki metal musikaren merkaturatzean eta berak

dioenez, duela 15 urteko merkatuak eta gaur egungok ez dauka inolako zerikusirik. "Orain askoz ere musika gutxiago saltzen eta lehen esku-tatik kendu egiten zuten. Baina orokorrean disko sektore osoak egin du behera", adierazi du Etxeberriak.

Iruñe Etxeberriak adierazi digunez, azken urteotan merkatua asko aldatzen ari da. "Orain lau urte, 20 denda txiki egongo ziren baina gaur egun lauzpabost gelditzen dira. Denda txikiak ixten ari dira, pirateoarengatik eta azken batean, jendeak gero eta musika gutxiago erosten duelako. Denda asko dauzkaten kateekin lan egin behar da orain", dio Iruñe Etxeberriak. Bartzelonan eta Madril-en saltzen dute gehiena.

'Metal sound' katalogoa

Katalogo bidez, postaz ere metal musika saltzen du Goimusic-ek. 'Metal sound' katalogoa banatzen du Espainiar Estatu osoan, 15.000 harpideren artean, batzaz beste, bi

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

XABIER SALINAS ELEKTROMEKANIKA

Erraminta elektrikoaren konponketa
Elektrikoa, pneumatikoa eta frekuentzi altukoa

☎ 943 88 21 49

Katea, 5



ALKIMAK erramienten alokairua

BEASAIN



kutxa

gizarte ekintza

hilean behin. "Merkatu garrantzitsuenak, Madril eta Bartzelona dira baina katalogoarekin konturatzen gara, hegoaldetik eskari asko izaten ditugula. Galiziatik ere asko", adierazi digu Iruñe Etxeberriak.

'A Sangre y Fuego' aldizkaria

Duela urtebete hasi ziren 'A Sangre y Fuego' aldizkaria kaleratzen. Metal musikarekin zerikusia duten gaiak argitaratzen dira bertan: taldeen elkarriketak, kritikak, nobedadeak... 2.500 harpide ditu eta 5.000 ale saltzen dira.

Goimusic zigilua

Bere zigilua ere sortu du Goimusic-ek. Momentuan, ondorengo taldeen lanak kaleratu ditu: Nörthwind, Eternal Mourning, Numen, Abyss, Dragon Lord, Lonewolf, Lorient, Centinela Darksun eta Source.

Numen Arrasateko taldearen diskoa Goimusic-ek ekoiztu du. Iruñe Etxeberriak adierazi digunez, "atzerrian euskarak ez du saltzen. Nahiz



eta musika gustatu, baina itzulpenak egiteko garaian oso zaila zen".

Musika taldeen kamisetak ere egiten dituzte Goimusic-en, taldeen promoziorako.

Merkatu aberatsak

Merkaturik indartsuena Alemaniako dago, bai produkzio aldetik eta bai salmenta aldetik, segurarrak adierazi digunez. "Italia, Frantzia eta Espainian saltzen da musikarik gutxien. Alemaniako mantendu egin dute merkatua. Alemaniako merkatua ezin da hemengoarekin konparatu". Asia aldea ere oso merkatu

aberatsa omen da, salmentari dagokionean. "Normalean asiarrek lizentziak erosten dituzte eta han editatzen dituzte diskoak. Taiwanen beste probadore bat ere badugu".

Beasainen kokaleku

Normalean era honetako enpresak hiriburuetan izaten dute egoitza. Goimusic-ek Beasain aukeratu du. "Madril batega balego gauzak asko arrotzatuko liriteke. Baina Beasainen gaude eta gustura gaude. Madril egonda abantaila gehiago izango genuke. Produkzio gehiena kanpotik iristen da eta Madrildik

Zozketa

Goimusic diskoetxeak kaleratutako cd sorta eta Eraso taldearen 5 kamiseta zozketatuko ditu GOIERRITARRA aldizkariak. Horretarako, zuen izen-abizenak eta telefono zenbakia bidali ondorengo helbide honetara, maiatzak 29 baino lehen.

Helbidea:

124 posta-kutxa
20240 Ordizia

e-posta:

goierritarra@topagunea.com

Irabazleen izenak ekainaren 4ko alean kaleratuko dira GOIERRITARRA aldizkarian bertan.

eta Bartzelonatik iristeko egunak galtzen dira. Eta askotan bezeroarengana lehenengo iristeak garrantzia badauka. Galtzen diren egun horiek garrantzitsuak dira askotan".

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

© 943 65 21 76 ABALTZISKETA



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

☎ 943 88 87 02

BEASAIN

ainara etxeberria

HANKARA
podologia zentroa



Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza, 4

BEASAIN

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN

'Euro-scola' lehiaketan bigarren izan dira Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasleak

Europako Konstituzioa izan dute interneteko jokoaren gaia

Europako Parlamentuak Europako ikasleentzat lehiaketa bereziak antolatu izan ohi ditu azken urteetan. Internetean murgilduta, proba ezberdinak gainditu behar izan dituzte, taldeka. Aurtengo gaia Europako Konstituzioa izan da eta Beasaingo Txindoki-Alkartasuna institutuko hamarrek taldea, bigarren gelditu da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Maitane Aizpurua, Maria Bravo, Koldo Gutierrez, Edurne Korta, Ainhoa Martinez, Amaia Mendizabal, Nagore Murgiondo, Javier Perez, Borja Urzelai eta Iñaki Valero ikasleek taldea osatu eta Europa mailako lehiaketan parte hartu dute. Hilabete eta erdian, interneten, www.euro-scola.com gunean, hainbat proba gainditu behar



Apirilaren 30ean egin zen 'Euro-scola'-ren sari banaketa. Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria, Miren Azkarate Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Gasteizko alkatea eta Europako Parlamentuko ordezkari bat izan ziren sari-emate ekitaldian.

izan dituzte. Ikasle gehienek, Zuzenbidea jakintzagaia ikasten dute eta ikasgai horretako hainbat ordu erabili dituzte frogak egiteko. Carmen Barrio, Zuzenbideko irakaslea eta Maite Fresnillo Historiako irakaslea izan dituzte laguntzaile.

Urtetik urtera emaitzak hobetzen

Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasleek ez dute lehiaketa honetan parte hartzen duten lehenengo aldia. Duela bi urte izan zuten lehiaketa horren berri eta parte hartzea

Zuzenbidea ikasten dute eta ikasgai horretako hainbat ordu erabili dituzte frogak egiteko.

erabaki zuten. Lehenengo urtean hamargarrenak gelditu ziren, iaz laugarrenak eta aurtent, bigarrenak. Apirilaren 30ean jaso zuten saria Gasteizen, argazkian ikus daitekeen bezala. Hori bai, sari nagusiaren atarian gelditu dira. Hau da, Europako Parlamentuko egoitza ezagutzeko bidaiarik gabe. Dena den, Eusko Jaurlaritzak emandako oroigarriarekin gustura itzuli ziren Goierriara. Lehenengo bost taldeetako lagunak, bazkariaren bueltan elkartu ziren.

'Euro-scola' lehiaketa Europa mailan antolatzen bada ere, Autonomia Erkidego bakoitzak banatzen ditu sariak.

mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

Zure etxebizitza saldu edo berria erosi nahi baduzu,
orain Beasainen...

INMOBILIARIA-AGENTZIA
SALMENTA
ETA
ERRENTAMENDUAK
VENTA
Y ALQUILER
AGENCIA INMOBILIARIA

943 086 579
670 238 357

VALENCIAGA

Nafarroa etorb., 3
BEASAIN

INMOBILIARIA-AGENTZIA

www.inmovalenciaga.com

Jai zoriontsuak denoi!



EXIN 10

taldearen bidez, Donostia aldean etxebizitza aukerarik zabalena

Unanue

70 URTEURRENA
1934 - 2004

ORDIZIA - BEASAIN

70 urte
goierritarrak
goxatzen!



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia.

A-D ereduetan



TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza
barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

Izen ematea:

ekainaren 1etik 9ra arte


J.M. Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara Bidea z/g.

Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403

E-posta: jmiparragirre@edunet.es



Ola auzoa,4 LEGORRETA

☎ 943 80 61 00 - Faxe: 943 80 63 74

**Lorategietarako
eta hondartzarako
altzariak**

**Diseinuko altzari
modernoak**

Jai zoriontsuak denoi!



'Legorreta: Bizitza ibaiaren biragune batean'

Antonio Agirre Sorondok Legorretako historia jaso du liburuan

Maiatzaren 8an aurkeztu zen Legorretan, Antxon Agirre Sorondok idatzitako 'Legorreta: bizitza ibaiaren biragune batean' liburua. Herriaren sorreratik gaur egunerainera arteko historia biltzen da, 243 orritan, argazkiz lagundurik. Ondorengo lerrootan, 1625eko Legorretari buruzko kronika bat bildu dugu, herriaren sorrera eta herriari buruzko xehetasun zehatzak ematen dituelako. Liburua irakurri nahi duenak, Legorretako udaletxean eskura dezake.

Lope Martinez de Isasti kronikariak, herri gisa sortu eta handik hamar urtetara, 1625ean urtean egiten duen Legorretaren deskribapena:

1.- Legorreta da, maiestatearen pribilegioz 1615. urtean bereizitu zen herrietako bat, aurrez Villafrancako eskumenekoa izan baitzen. Hartatik legoa batera eta Tolosatik bitara dago Errege Bidean, bi mendi garaien artean, eta mugak Aldabako eta Aralarko mendietan ditu. Larre askoko ingurua da abelburu ororen bazka, baina batez ere, behi, ardi, ahuntz eta behorrak ditu; eta gaztaina eta ezkurra asko txerri-aziendarako. Fruta asko ere badu, ginga, gerezi, aran, udare, txermen, intxaur, hur, sagar eta bestelako batzuk.

2.- Herri honetatik Oria ibaia igarotzen da eta harlanduzko bi zubi ditu haren gainean.



Legorreta XX. mende hasieran.

Zubi sendoak dira ibaiaren igoerei eta uholdeei aurre egiteko. Ibaian bizi dira aingira horiak, leunak eta gantatsuak eta beste erreka batean, ibaira ematen duenean, izokin-amorarrainak, probintzia guztiko onenak.

3.- Udalerrri barruko mendietan ehiza ugaria da, basurdeak, oreinak, erbiak, hartzak, otsoak, azeriak, azkonarrak eta beste mota askotako animaliak eta hegaztiak, eperrak, oilagorak, usoak eta mendiusoak eta arranoak. Ibaieretzan garia, zekalea, artatxikia eta lihoa ereiten da eta baratzetan barazki asko, baba, meloia eta txiribia, bai eta arboladi asko ere, lurrak berez ematen duena eta errege bidean itzala ematen dutenak bidaiariaren gozamenerako.

4.- Bertakoeak oilo, oilasko eta kapoi asko hazten dituzte beren entretenimendurako eta, bide batez, bidaiariak hornitzen nahiko merke; eta horiekin eta urdairekin ez

dute beste haragiren beharrik.

5.- Eliza San Salbadorren izenpekoa da. Aurrean plaza du, laukizuzena, zabala, eta erdian adaburudun zumarra; eta alde batetik Oria ibaia astintzen du. Erretore bat eta bi klerigo ditu. Eta herriak legoa erdia inguruko muga barne hirurogeita hamar etxe ditu.

6.- Herriaren antzinatasuna Legorretazarra etxearekin lot daiteke; izan ere, 1227. urtean Sebastian de Legorretazarra Gaztelako Fernando, izen bereko hirugarrenaren menpe zegoen Baezako hiriaren babes eta hartzean Lope de Harro, Bizkaiko Konde eta Jau-naren aginduetara. Madrileko Geronimo de Villa arma-erregeak ziurtatzen du horixe, etxe honek dituen insigniak adierazten dituenen.

7.- Mutikoen eskola maisua du, soldatapekoa, hari ordaintzeko Martin de Alliri, Alliri etxeko seme eta Enperatriza-

ren jostunak Bohemian eta Pragan, Alemanian, jarritako errentarekin.

8.- Herri honetako izan zen Esteban de Legorreta flandiar estatuetaiko gudazelaiko maisu. Eta Pedro de Legorreta, bere anaia, Infanteriako kapitain. Eta Pedro de Axobin kapitaina, haren iloba, Indietako gobernu batean dihardu oraino. Eta Juan de Ganboa, Santiago Ordenako Zalduna, Ogasun Kontseilukoa da. Baina beste hainbat ere izan dira ospetsu herri honetan.

9.- Juan de Oriar, legorretarra, bi armadun oinetxetako semea, Montarazko Markes Rodrigo de Orozkoren idazkari izan zen, Gobernadore eta Pallako Alejandriako eta Poo harandiako Kapitain Jenerala ere izan da eta, orain, Najerako Dukearen Gortekoa.

10.- Herri honetako oinetxeak, antzinatasunagatik eta Gipuzkoako beste batzuekin batera, lehen liburuan jasotzen dira.

11.- Herri hau Villafrancako herritik banandu zenean 1615. urtean, Pedro de Aulia izan zen lehenengo Alkate, Eleizalde Etxeko jabe eta Jauna eta aginte-makila, bere maiestatearen izenean, Hernando de Rivera Lizentziatuak eman zion: "...eta botere emateko eta gure Jaun Errege Felipe Hirugarrenari harrera egiteko prestaketa lanak antolatzeke, urte horretan izan baitzen, Gipuzkoako Batzarre Nagusiak bere etxean bildu ziren eta aipatu Pedro Aulia, herri honetako Alkate izanik, bertaratu egin zen".

Gipuzkoako Kantu txapelketako finala

Ataunen jokatu da maiatzaren 22an

Goierriko lau ordezkari arituko dira lehian

Euskal kantugintza bultzatzeko helburuarekin antolatzen ditu Euskal Kantuzale elkarteak kantu txapelketak. Gipuzkoako txapelketa, aurren, Ataunen jokatu da, maiatzaren 22an, gaueko 10etan, herri antzokian. 13 partehartzaile izango dira eta tartean, goierritarrak ere bai: 4 ordezkari.

Garazi Aierbe ataundarra, Jon Barreros lazkaotarra, Abalortz Olano zaldibiarra eta Beasaingo Musika Eskolako Sukan taldea izango dira Goierri ordezkatuak dutenak. Lehenengo hiruak bakarkako mailan neurtuko dira eta Sukan taldea berriz, bikotekako atalean, bi abeslari baititu taldeak. Hurrengo orrian dituzue lau ordezkari berrak zehetasunak.

Partehartzaile bakoitzak



Batez ere gazteen artean, euskal kantugintza bultzatzea du helburu kantu txapelketak.

bina kantu abestu beharko ditu. Kantua bera epaituko du epaimahaiak. Norberak sortutako abestia izatea ere sarituko du epaimahaiak.

16 urtetik gorako abeslariarentzako txapelketa da Ataunen jokatu dena. Helduen txapelketa lau urtean behin jokatzen da. Haurrena, bi urtean behin. Iaz hain zuzen ere, Ataunen jokatu zen haurren txapelketa eta Euskal Kantuzale Elkartekoei asko gustatu omen zitzaion Ataun-

go antzokia bera eta bertan sortu zen giroa. Hortik, helduen txapelketa antolatzeko gogo. Herriko Eate abesbatzak antolatuko du jaialdia eta epaimahaiak epaia erabakitze hartuko duen tartean, Eate abesbatza beraren saioa izango da.

Ataungo saiotik, hiru ordezkari joango dira Euskal Herriko txapelketara. Ekainaren 19an, Donostiako Kursalean jokatu da finala.

Helburuak

Era honetako txapelketekin, euskal kantugintza bultzatzea du helburua Kantu txapelketak, Maximo Aierbe ataundarra adierazi digunez. "Euskal Herri osoan pixkanaka-pixkanaka beheraka doa kantugintza. Iparraldean nahiko ondo dago, Nafarroan ere bai, eta Bizkaian hainbeste. Baina Araban eta Gipuzkoan behera jota dago. Horrelako ekintzekin kantua bultzatu nahi dugu. Haurren txapelketak, adibidez, bi urtean behin egiten ditugu eta aitzakia horrekin haurrak kantuan jarri nahi ditugu. Eskolatan musika erakusten baina kantua ez da lantzen. Kantatzen ez da erakusten", gaineratu du Aierbek.

Horrekin batera, kantariei eskenatokia eskaini nahi zaie kantu txapelketarekin. "Lotsak kendu eta eskenatoki gainean egoten ikasteko", adierazi du ataundarra.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

Goierriko ordezkaritza



Sugan taldea

Beasaingo Musika Eskolan sortu berria den taldea da Sugan. Lau lagunek osatzen dute: María Amolategi eta Eli Bujanda abeslariak; Victor Sanchez bateria eta Garazi Zabaleta teklaturak. Pop doinuak kantatzen dituzte beasaingarrek eta Kantu txapelketarako, beraiek sortutako bi kantu prestatu dituzte: 'Maiatzean' balada eta erritmo gehiago duen 'Zarena zarelako'. Aurreko egunean, maiatzaren 21ean, Beasaingo jaietan, iluntzeko 8,30etan kontzertua eskainiko dute Loinazko San Martin plazan.



Garazi Aierbe


16 urteko ataundarrak, gitarra lagun duela abestuko du. Berak konposatutako kantu bat abestuko du: 'Bakardade hotza'. Parisko kartzela batean dagoen euskal preso baten inguruko kanta da. Bigarren kantua zein izango den, erabakitzeke dauka, hiru kanturen artean. Azkeneko egunean erabakiko omen du.

Iaz haurren kantu txapelketan parte hartu zuen Garazik eta oso esperientzia polita izan zela azpimarratu digu. Aurren, aitaren bultzadaxoa behar izan du txapelketara aurkezteko.



Jon Barreros

Uztailean 16 urte beteko dituen lazkaotarrak, iaz haur kantu txapelketan parte hartzeko asmoa bazeukan ere, berandu ibili zenez, aurtengorako utzi du eskenatoki gaineko debuta. Bi kantu prestatu ditu: Etzakit taldearen 'Zu galdua' eta Ken 7-ren 'Haizea'. Gitarra lagun duela abestuko du lazkaotarrak. Lazkaoko Musika Eskolan ari da gitarra eta kantua ikasten.



Abalortz Olano

24 urteko zaldibiarak, Benito Lertxundiren bi kantu abestuko ditu: 'Erribera' eta 'Atharratzeko Gazteluko kantua'. Abalortzek ahotsa jarriko du, gitarraren soina, Beñat billabonatarak. Bere gitarra irakaslea da Beñat, hasi berria baita zaldibiarra gitarra ikasten. Hain zuzen ere, azken honek animatu zuen Abalortz kantu txapelketan parte hartzera. Aurretik herri mailan eskenatoki gainean kantuan aritutakoa da, afal ondorenetan ere bai. Gozatzeraz joan nahi du Abalortzek Atauna, kantatzea gozamen delako berarentzat.

Migdäla

“Moda sentimendu bat adieraztea da”

Zer da moda zuretzat?

Moda hitza oso erabilia da gaur egun. Arropa munduan tendentziak aldatzen doaz, logikoa da, bestela beti berdina izango litzateke dena eta inork ezer salduko ez lukeen momentua iritsiko litzateke. Pertsonak berrizaleak garenez, hori eskatzen dugu, gure begiei nobedadeak gustatzen zaizkie.

Moda hitza oso konplexua izan daiteke, nire iritziz ez da garrantzitsuena azken tendentziak jantzita ibiltzea. Garrantzitsuagoa iruditzen zait pertsonari doakiona, bere izatekoarengatik eta bai bere itxurarengatik, jantzeko gustua modari egokitzea. Hau da: ‘Fashion-Victim’-a izateagatik ez goaz itsurosoago. Garrantzitsuena da, gauzak ongi konbinatzen jakitea beti norberaren grazi puntu batekin, eta hau oso pertsonala da. Hor dago grazia bestela denok berdin-berdin jantziko ginateke, etxe berdina nahiko genuke, izateko era berdina... oso irrealak da guzti hau. Beraz moda, sentimendu bat kaleratzea da.

Zer dira zuretzat pasarelak? Zure diseinuak direla eta ba al duzu horrelako asmorik?

Pasarelak oso modan daude, eta telebistan gero eta gehiago azaltzen dira, baina... sarritan entzuten ditu komentario ez egokiak. Diseinatzaile bakoitzarentzat pasarelan bere arropa erakusteak garrantzi handia du, pasarelan diseinuak atentzia deitzeko dira, dena oso exajeratua da. Baina honek ez du esan nahi gero horrela kaleratuko denik arropa hori, diseinatzaileak arropa hori errealistagoa bihurtuko du kaleratzeko. Adibidez: transparentziei forruak jartzen zaizkie; gona oso



oso motz horiek, luzatu egiten dira.

Hala ere egia da batzuetatik besteetara alde handia dagoela. Batzuk, bere imaginazioari askatasun izugarria ematen diote, zerbait espektakularragoa bihurtuz bere lana eta beste batzuk lan errealistagoa egiten dute. Hori norberaren baitan dago. Nire ametsa ez da pasarelan ateratzea, niretzako egi bihurtutako ilusioa da nik diseinatutako arropa jantzita ikustea eta hori bete denez zoriontsu naiz. Askoz ilusio handiagoa egiten dit igande batean paseatzen noala, norbait nire arroparekin ikusteak, pasarela batean modelo bati ikusteak baino. Azken finean pertsona horrek berari gustatu zaiolako jantzi baitu eta modeloak norbaitek esan diolako, bere lana delako.

Aurtengo moda gustatzen al zaizu? Zein tendentzia dago?

Egia esan, denboraldi honetako arropa erosten hasi nintzenean pixka bat ikaratu nintzen, dena oso koloretsua iruditzen zitzaidan. Baina egia da begia jarri egin zaidala. Korteak berriz, 30 eta 60 urtekoak dira. Oso kolore bixiak daude, kolore “azidoak”, berde pistatxoa, urdin turkesa, arrosa fuksia, hori lima, gorri oso gorriak, laranja... Txuria eta beltza ere ez dira atzera gelditzen. Kolore askoren nahasketak, estanpatuak, asko ikusiko dira. Lore azalari ez zaio tejidoaren kolore bixia faltako aurtengo udan.

Migdäla

Oriamendi kalea, 29 Beasain

943 02 73 63

Musika ikastaroak

2004-2005 ikasturteari begira hasi dira jada musika ikastaroak prestatzen. Hiru ziklotan banatuta, adin bakoitzarentzat aukera ezberdinak jarri dituzte. Lehen zikloan bi taldetan banatutako musika tailerra, lehenengo taldean 4-5 urte arteko haurrak eta bigarren taldean 5-6 urtekoak arituko dira. Hastapena berriz, 6-7 urteko haurrentzat.

Bigarren zikloan, lau mailatan banaturiko hizkuntza musikala erakutsiko dute, zeharkako flauta, alboka, dulzaina, pianoa, teklatura, gitarra akustikoa, elektrikoa, baxoa, akordeoia, saxofoia, txistu, trikitixa, panderoa, txal-

parta... bezalako instrumentuak ikasteko aukera egongo dak. Ziklo honetan kurtso hasieratik taldeka lan egingo da. Hirugarren eta azken zikloari dagokionean, harmonia eta konboa irakatsiko dira.

Kurtso berrirako matrikula egin nahi duenak ekainaren 4ra arte du epea, asteleheneetik ostiralera Joxemiel Barandiaran Eskolan arratsaldeko 4,30etatik 6ak bitartean. Informazio gehiago jaso nahi duenak 626894441 telefonon du aukera. Urtero egin ohi duten bezala, aurten ikasturte amaierako kontzertua ekainaren 11n arratsaldeko 7etan izango da, Herri Antzokian.

Abelino Barriola saria

2003-2004 ikasturteko Abelino Barriola deklamazio lehiaketako sarituak zeintzu diren jakitera eman da. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak antolatzen du sari hau eta bertan ahozko euskararen kalitatea eta bizitasuna neurtu nahi dira. Ezinbestean kontuan hartzeko irakurgai bat, antzerki zati bat eta bakoitzak nahi dituen prosako bi eta poesiako beste bi lan kasete batean ikasleen ahotsez grabatuta bidali behar izaten da. Aurten lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako kategorian eta D ereduan saria Joxemiel Barandiaran eskolako 4. mailako ikasleek lortu dute. Sari bezala gela horretako ikasleek bidaia izango dute Ipar Euskal Herrira udazkenean. Bestetik irakasleentzako astebete inguruko bidaia, euskaldunok bezala bere hizkuntza indarberritzen saiatzen ari den herrialde batera.

Munduari itzulua bizikletaz

Eneko Etxebarrieta gazteak Munduari itzulua bizikletaz '4 urte, 46.000 km, 35 herrialde' proiektzioa aurkeztuko du maiatzaren 27an, San Gregorioko Auzoko Elkargunean, 20:00etan.

I. argazkigintzako ralia

Ataungo I. argazkigintzako ralia antolatu du Udalak, maiatzaren 30ean. Lekua eta ibilbidea Ataungo udalerrian barrena izango da, parte hartu dezaketenak, lanbidez argazkilariak ez diren zaletu guztiak. Izena ematea, igandean bertan Udaletxe aurrean egingo da, 8:00etatik 10:00etara. Epaimahaia erakunde antolatzailerak izendatuko du eta bere erabakiak aldaezinak izango dira. Lehen saria: 300 euro, 2.a: 150 euro, 3.a: 90 euro. Sari banaketa eta aukeratutako diapositiben proiektzioa, ekainaren 19an, 19:00etan, Herri Antzokian izango da.

Doltza Barandiaran



Barazki postu honekin lortu zuen 1.go saria Juan Arrondok.

San Ixidro eguna

Joan den larunbatean, hilak 15, ospatu zen San Ixidro eguna San Gregorion. Sari banaketako emaitzak honako hauek izan ziren: Barazkietan: 1.go saria Juan Arrondok lortu zuen, 2. Pili Eskisabel, 3. Fermina Arrese. Zizetan: 1. Zeferino Auzmendi, 2. Miren Goikoetxea, 3. Rosario Urdangarin.



130 lagunek jada eskuartean dute EHNA, eta agiria erabiltzeko konpromisoa hartu dute.

EHNA bide onetik

Euskal Herritar Naziotasun aitormena egiteko kanpaina hasi zenetik, dagoeneko 130 ataundarrek EHNA esku artean dute. Ataungo Bai Euskal Herriari taldeak egindako deialdiari erantzunez, apirilaren 24an San Martinen elkartu ziren argazkia ateratzeko. Aldi berean, gogorazi nahi dute hilaren lehenengo eta azkeneko larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara udaletxeko 2. solairuan tramitzeko aukera duela herritar orok. 3 argazki, errolda agiria eta 15 euro besterik ez da behar EHNA egin ahal izateko.

Mendi ibilaldia

Aurreko alean aditzera eman genizuen bezala, bi urtez behin, Ataun Kirol Elkarteak eta Oargi Troskaetak antolatzen duten mendi ibilaldia maiatzaren 30ean, izango da. Ibilbide nagusiak 4 ordu inguruko iraupena izango. Aukerako ibilbidea berriz, 2 ordu ingurukoa izango du. Irteera Herri Antzoki aurrean izango da, Zelaletan hain zuzen ere. Ibilaldi luzea egin behar dutenak goizeko 8etan aterako dira. Ibilaldi motza aukeratzen dutenak berriz, irteera 10etan izango dute. Izena ematea, igandean bertan, irteera lekuan egingo da. Taldeak, 2 edo 3 kidekoak izango dira. Partehartzaileek txartelean aipatzen diren kontrol guneetatik igaro beharko dute. Bertan edaria eta janaria izango da nahi duenarentzat. Ibilbidearen nondik-norakoa adierazita egongo da. Ibilbidea amaitzen duten guztiei oroigarri bana emango zaie.



Loinatz jaiak

Berriro ere iritsi zaizkigu Loinatzak. Maiatzaren 21ean hasi eta 30a bitarte luzatuko dira aurtengo jaiak. Eta hasiera, azken urteotan ohitura bihurtu den moduan Murumendiko Mariren jaitsierak emango dio, gaueko 22:30ean, Loinazko San Martin plazan. Egitarau zehatza 12-14 orrietan duzue.

Egitarauaren azala

Aurtengo Loinatz jaietarako egitarauaren azala eta kartelaren diseinua, Raul Piñeiro Alvarezek egin du. 'Marijuein' lanarekin irabazi zuen Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko egin zen lehiaketan.

Trafiko mozketak eta aldaketak jaietan

Loinatz jaiak direla eta herriaren erdialdean trafikoa etenda geldituko da. Beraz baimen berezia jaso behar du Udalzaingoa, edaritegien jabeek, salgai-banatzaleek eta Zaldizurreta kaleko 1, 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 17 eta 19; eta Kale Nagusiko 5, 9, 22, 34 eta 36an eta J.M. Iturriotz kaleko 7an dauden garajeetako erabiltzaileek.

Erakusleihen lehiaketa

Dendetako erakusleihen lehiaketan, epaia jendeak emandako botoz eratua izango da. Botoa eman nahi duten pertsona guztiek, Beasaingoak izan ala ez, Segura Irratira deitu beharko dute, maiatzaren 26, 27 eta 28an, eguerdiko 12,30etik 13,00etara 'Lore artean' programara. Botoa ematen dutenen artean erosketak egiteko 52 euroko bi bale zozketatuko dira.

Lagun-taldearen arteko futbol txapelketa

Ohitura moduan, Loinatz jaietako astelehenean, maiatzaren 24an, koadrilen egunean jokatu da, lagun-taldearen arteko XXVIII. futbol-txapelketako azken partidua. Xisticius Blues eta Auskalo arituko dira elkarrekin leian, La Salle-San Jose Ikastetxean, goizeko 11,30etan.

Urrezko Barea

Beti Bizi elkarteak herriaren alde egindako lana eskertzeko, Urrezko Barea ematen du. Aurten Loinatz abesbatzak jasoko du, maiatzaren 28an.


Nekane Altuna

Asmubekoen irteera

Asmube Emakume Elkartek, kurtso amaiera dela eta irteera kulturala antolatu du ekainerako. Bi aukera izango dituzte. Monasterio de Piedra eta Zaragozara bi egunetarako edo eta Encisora eta Kalahorrara egun baterako. Izenak lehenbailehen eman behar dira Urbietxean duten egoitzan, 17:00etatik 19:00etara

Alzheimer gaixoentzat oporrak

Opor programa honetan parte har dezakete dementziaren bat fase arinean edo moderatuan duten pertsona guztiek, portaeran asaldura larriarik jasaten ez badute eta beren laguntzaileak joaten badira. Irteera datak: ekainean eta irailean. Antolatzailea AFA-GI-Alzheimer Gipuzkoa da. Informazio gehiago eta eskaerak Udaleko Gizarte Zerbitzuan, 943-038075 telefono zenbakira deituaz.




'Primera persona singular: de ser soy'

Jesus Angel Garcia poesia liburua kaleratu du

'Primera persona, singular: de ser soy' poesia liburua aurkeztu zuen Jesus Angel Garcia beasaindarrak joan zen maiatzaren 18an. Azkeneko sei hilabeteetan idatzitako bere 60 poesia biltzen dira bertan eta baita bere hiru lagunaren beste 8 ere. Hil berria zaion aitaren oroimenez idatzi nahi izan du liburua. Azaleko argazkia, bere aitaren gaztetako argazkia da. Ingurukoek animatu behar izan dute lehenengo liburua argitaratzera, idatzi aspalditik egiten zuen ere, beretzat gordetzen baitzituen. Orain irakurleon eskura jarri ditu bere sentipenak, "poema guztiek nire bizitza laburbiltzen dute", dio beasaindarrak. Amodioa, maitemina eta bakardadea dira batik bat poemen funtsa. Irakurlea ere probokatu nahi izan du zenbait momentutan.

Gaztelaraz idazten ditu Jesus Angel Garcia poesia, euskaraz jakin badakien arren, momentu batean, esan nahi duena, askorik pentsatu gabe, gaztelaraz ateratzen zaiolako. Bere poesia euskarara itzuli nahi izan ditu baña poesia itzultzeak duen zailtasunagatik, momentuz behintzat, utzi egin du. Liburuaren diseinua AH Diseinuak egin du eta lerro hauetatik eskerrik beroenak eman nahi dizkie Jesus Angelek.

Aizkorriko bira arrakastatsua



Aizkorri Mendi Elkartekoak gustura geratu ziren maiatzaren 9an egin zen II. Aizkorriko birarekin. Eguraldia ere lagun izan zuten, nahiz eta aurreko egunetan egin zuen euriaren ondorioz, leku askotan lokatza izan. Aizkorri puntan esaterako elurra zegoen. 200 mendizale baino gehiagok hartu zuen parte. Imanol Rezola iritsi zen lehena 7 ordu eta 10 minutuko denbora eginez. Herritarren artean

berriaz, Justo Aiestaran eta Txemi Perezek 8 ordu eta 15 minutu behar izan zituzten helmugaratzen. Gehienek hala ere, 11-12 ordu inguru behar izan zituzten ibilbidea osatzeko.

Olaberria 1804-2004 bertso-paper lehiaketa olaberritarrentzat

Udalak, bere 200 urtemuga aitzakitzat hartuz, Olaberria 1804-2004 bertso-paper lehiaketa antolatu du

Gaia: 'Olaberria: 200 urte herria eginez'. Doinua librea da. Lehiaketan parte hartzeko derrigorrezkoa da Olaberrikoa izatea. 200 euroko saria eskaintzen zaio irabazitako lanari. Lanek behar adineko mailarik ez badute saririk gabe geratuko dira. Bertsopaper bakoitzak, gutxienez zortzi bertso izan beharko ditu.

Lanak 2004ko ekainaren 15aren aurretik bidali beharko dira Udaleko kultura saile-ra.

Lanak aurkezteko baldintzak: makinaz idatziak izatea, lan bakoitzaren originala eta lau kopia bidaltzea, izengoitiz sinatuak izatea, aparteko sobre itxi batean, egilearen izena, helbidea, telefonoa eta beharrezko diren gainontzeko xehetasunak, sobrearen kanpoaldetik izengoitia jarritz.

Epaimahaia Olaberriko Udalak izendatuko du, horretarako pertsona adituak aukeratuz. Epaia San Joan egunean, ekainaren 24, emango da.

Saritutako lanen jabetza Olaberriko Udalaren esku geratuko dira, eta erabiltzeko eskubide osoa izango du.



Jaunartzea

Joan zen maiatzaren 9an Uxue Urteagak eta Maialen Etxeberriak jaunartzea egin zuten Olaberriko elizan. Seguruenik bizitzako egun ahaztu ezina izango dutela. Zorionak!

Zeba abesbatza Idiazabalen

Gaur, maiatzak 21, arratsaldeko 7,30etan, Idiazabalgo Pilar Enean, kontzertua eskainiko du herriko Zeba abesbatzak.

Amaia Insausti hirugarren Donostiako Maratoi Erdian

Maiatzaren 16an Donostia Maratoi Erdi jokatu zen eta Amaia Insaustik hirugarren postuan sailkatzea lortu zuen. Amaiak ordu bete, 17minutu eta 45 segundu behar izan zituen eta irabazlearengandik 5 minutura iritsi zen, baina hala ere Gipuzkoako txapelduna izan zen.

Urkiolara mendi irteera

Ekainak 6, igandea, herritar guztientzako Urkiolara mendi irtenaldia antolatu da. Igande goizean Aramatik irten eta Urkiolara inguratzea litzateke asmoa, bertatik Anboto inguruko parajetan bueltaxka bat eginez. Eguardian, eguraldiak lagunduz gero,

bertan prestatuko litzateke bazkaria. Naturaz gozatuz egun eder bat pasatzea da asmoa eta honegaitik ahalik eta herritar gehien hurbil dadin nahi da. Gogoratu irtenaldi hau adin guztientzako laguntzat dagoela pentsatua.

Jaunartzeak

Jaunartze garaian gauden honetan, Aramako herritarra den Haritz Insausti Zeberio, maiatzaren 23an ospatuko du bere lehen jaunartzea. Elizkizuna Aramako San Martin elizan izango da goizeko 11etan. Haritzi eta bere senide eta lagun guztiei egun polita pasa dezatela opa nahi diegu.

Partehartu nahi duen orok, Udaletxean eman beharko du maiatzaren 30 baino lehen izena.

Tobera Musika eskola

2004-05 ikasturterako hel-duen taldea (16 urtetik gorakoak) osatu nahi da. Maiatzaren 18an izan zen lehen bile-ra informatiboa. Bertan, musika hezkuntza bi ikasturtetan egiteko eta musika tresna hasieratik jotzen hasteko aukerak eskaini ziren. Taldea osatzeko 6 lagun beharko dira gutxienez. Informazio gehiago 943801570 telefonoan.

Matrikulazio epea. 2004-05 ikasturterako, haur nahiz helduak matrikulatzeko, maiatzaren 27 eta 28an eman behar da izena Kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.

Zikloturisten egutegia

Herriko zikloturista taldeak uda arteko plana egin du. Maiatzaren 9an '0' itzuliarekin eman zioten hasiera. Ekainaren 6an, Arantzazura egingo dute joan-etorria. Uztailaren 3an, berriz, Kostako itzuli famatua berreskuratu dute. Irteera, goizeko 9etan plazan.

IV. Futbito txapelketa

'Robin Zurrut', 'Aurrea gorrie', 'Ostegunean loto', 'Guk asteazkenen', 'Segurs', 'DJ Pi' eta 'Lanbatero' koadrilek eman dute izena, ekainaren 26an amaituko den futbito txapelketarako. Zozketa, asteazkenean zen egitekoa

0-2 haur eskolarako epea zabalik

Eusko Jaurlaritza eta udalerrien arteko hitzarmenari esker, Seguran ere Oti 2 urte arteko haur eskola martxan jarriko da irailetik aurrera. Maiatzaren 17an udaletxean burutu zen bilera informatiboan 20ren bat interesatu azaldu ziren. Haur eskola publikoa, beheko eskolako gela batean kokatuko da. Irailaren erdi aldera hasita, zabalik izango da, abuztuan izan ezik. Astelehnetik ostiralera, 11 orduz egongo da irekita egunero. Umeek ezingo dute 8 ordu baino gehiago egin bertan. 5 ordu arte 135 euro hilabetero eta 5 ordutik gora 180 euro. Hezkuntza Sailak jarriko du pertsonala eta udalak lokala eta mantenimendua. Izena emateko epea: maiatzaren 28 arte.

Santa Barbara 23an

Santa Barbara eguna abenduaren 4an bada ere, azintzio asteko igandean ospatzen da Seguran, aurtien maiatzaren 23an. 728 metroko tontorrera igo berrientzat, pronto izango dira kafea, gailetak eta anixa. Eguneko errito nagusia, mezaren aurretik burutuko da, bertako pago adar batez, lurrak, abereak eta etxeak lau haizetara bedeinkatuz. Goi-

zeko 9etan auzoan hildakoen aldeko meza emango da. Ondoren, Kortaberriarrek traktorean igotako hamaiketako eskainiko da (udalaren laguntzaz).

1711ko zezenketa

Garai hartan, beste hainbat gertaeretan bezala, 1711n Santa Barbarako emittaren obrak bukatu izanagatik ze-

zenketa izan zen. Herriko artxibotik jasotako aipamena, handiturik, koadroan sartu eta bertako aterpegunean jarri dute auzotarrek.

Mendi irteera

Kirol eskolarraren barne, denboraldiko 9. eta azken ateraldia maiatzaren 23an. Goizeko 7,45etan plazatik irtenda, Santa Barbarara.

eta norgehiagokak igande honetan hasita, jai goizero jokatuko dira.

Futbola

Asteburuko emaitzak:
Errejonialak: Segura 8-4 Intxurre. **Jubenilak:** Pasajes 4-2 Segura. **Kadeteak:** Beraun 4-1 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Jubenilak: Segura-Intxurre, ostiralean, 19:00etan.

Labur-labur

● **Etetik 1300 km-ra.** Xabier Makazaga preso herritarra, Caceresetik Algeciraseko Botafuegoko espetxera lekualdatu zuten pasa den astean.

● **Eneko Agirrezabal.** Junior mailako Gipuzkoako txapeldun geratu zen 400 metroan (52'42"), maiatzaren 15ean Anoetan.

● **Kirol eskolarra.** Maiatzaren 22an, frontoi ondoan, 9:30ean hasita, neska eta mutil alebinen futbola.

● **Jubilatuaren irteera.** Maiatzaren 25ean, 8:15ean Jermannetik autobusez, Sarara. Bertako kobazuloak eta herria bixitatu, Hondarribin bazkaria. Arratsaldean Hondarribira edo Donostiara. Egun-pasa, 21 euro bakoitzak.

● **Oxiña igerilekua.** Uda partean lan egiteko gutxienezko 3 laguneko taldea behar da. Izen ematea, maiatzaren 28 arte.

● **Haur tanborrada.** Ekainaren 25eko umeen tanborradarako entsaioak maiatzaren 31n, 17:00etan hasiko dira. Astelehen eta asteazkenetan, Baratzte pilotalekuan.

● **Sega txapelketa.** 'Almitza' sega taldeak eta udalak antolatuta, izen emate libreko sega lehiaketa burutuko da ekainaren 27an madurako zelaietan.

Joseba Telleria

Joxeba Auzmendiri oroigarriak



Udalak ez ezik, Segurako Kirol elkarteak ere eman zion oroigarri plaka Joxebari, erremonteko binakako txapeldun gelditu izanagatik. Honetaz gain, herriko koruak 'Agur jaunak' abestu zion. Bertan izan zen berarekin txapeldun geratu zen Zeberio II.a ere.



Pala txapeldunak

Hirugarren urtez jarraian, Juan Mari Galparsoro eta Pello Ormazabal geratu ziren txapeldun III. San Ixidro pala txapelketan. 30 eta 16 irabazi zieten Euxebio Campos eta Luixito Garmendiari maiatzaren 15ean.

Festen azken txanpa

Herriko jaiak joan zen asteazkenean, maiatzaren 19an hasi baziren, oraindik ere bada zertaz gozatua. Asteburua bete-betea dator aurten ere.

Maiatzak 21, ostirala:

10:00etan: Diana Legorreta-ko Musika Eskolako ikasleekin.

11:00etatik 13:00etara: Haur jolasak Harripila kiroldegian.

12:30ean: 12:30ean, pote, igel eta toka txapelketak herriko jubilatuen artean.

14:30ean: Herri bazkari Elegantea Bilkoin elkartean, 'Iraunkorrek' txarangak alaitua. Trajez jantzita joatea erregutzen da.

15:00etatik 17:00etara: Haur jolasak Harripila kiroldegian.

19:00etan: Haurrentzako play back saioa.

23:00etan: Helduentzako play back saioa.

Jarraian: Joxe Mari Orbegozoren Beasaingo Dantzak Dantza Eskolako saloiko dantza erakustaldia.

Maiatzak 22, larunbata:

10:00etan: Diana Legorreta-ko Musika Eskolako ikasleen eskutik.

13:00etatik 24:00etara: 'Halloween' Mozorro eguna.

13:00etan: Txakolin dastatzea 'Iraunkorrek' txarangak alaitua.

13:00etan: Herriko XXII. Paella txapelketa. 14:00etan amaitzen da prestatzeko epea.

14:30ean: Lagunarteko herri bazkaria plazan, txarangak alaitua.

23:30ean: Trakets taldearekin dantzaldia.

01:30ean: Mozorro lehiaketaren sari banaketa.



Iñaki eta Iñaxio Perurena aita-semeak arituko dira, maiatzaren 23an.

Ugaro Eskolako irteerak

Datorren astelehenean, hilaren 24an, Pagoetako parkera joango dira Ugaro Herri Ikastetxeko gaztetxo batzuk, 5. eta 6. mailakoak hain zuzen ere. Astelehen gaua bertan igaroko dute, eta astearte arratsaldean itzuliko dira. Irteera honen helburua batik bat natura aztertzea da. Ekosistemen funtzionamendua ezagutuko dute besteak beste.

Hala ere, hau ez da egun hauetako irteera bakarra, joan den astelehenetik asteartera bitarte haur hezkuntzakoak Hondarribian izan baitziren, eta 1. eta 2. mailakoak asteartean, aldiz, Igartza Monumentu Gunera, Beasainera. GOIERRITARRAREN hurrengo alean izango duzue irteera hauei buruzko informazio zehatzagoa.

Ugaro Herri ikastetxearen Ate Irekien eguna

Ekainaren 4an izango da Ugaro Herri Ikastetxeak antolatutako Ate Irekien eguna. Eskolako ateak zabalduko dira herritar nahiz kanpotar ororentzat, bertako funtzionamendua, baliabideak, instalazioak, eta abar ezagutu ahal izateko. Ekitaldi hau, arratsaldeko 7etatik 9etara bitarte burutuko da, eta bertan, "lunch" koxkor bat ere banatuko da. Gogoan izan, lehen, Ate Irekien eguna urtero ospatzen zela, baina orain 3 urtez behin izaten da.

Tolosako Sakramentinoetan ikasitakoei deialdia

Tolosako Sakramentinoetan ikasitako guztiei dei bat egingen zaie maiatzaren 29an egingo den festarako. Goizeko 11etan hasiko dira biltzen, eta 12etan meza izango da. Ondoren, bazkaria egingo da Sakramentinoetan bertan. Interesatuak, deitu 943084970 edo 943653698 telefono zenbakietara.

Zelai Amenabarro

Maiatzak 23, igandea:

10:00etan: Diana Legorreta-ko Musika Eskolako ikasleen eskutik.

Ondoren: Kalejira Solano Musika Eskolako ikasleen eskutik.

18:00etan: Kalejira 'Iraunkorrek' txarangarekin.

18:30ean: Zaldibiako taldearen eskutik sega apustuak eta Iñaki eta Iñaxio Perurena harrijasotzaileen erakustaldia Aizpe baserriko zelaian.

20:30ean: Gizon Pikuaeren ehorzketa.

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna

Ekainaren 5ean Ingurumenaren Nazioarteko Eguna ospatzen dela eta, Zaldibian, maiatzaren 30a, igandea, izendatu da aldarrikapen horretarako. Egun horren inguruan, Aste Berdea antolatze-ko asmoa baitago.

Maiatzaren 30ean, Olako-sailera mendi irteera egingo da, Lardizabal Herri eskolako haurrekin batera. Olakosailen, hamaiketako eta jokoak burutuko dira, tartean, 'Altxorraren bila' jokoak. Goizeko 9,30etan, plazatik, irtengo da mendi irteera.

'Gerrako haurrak' erakusketa

Maiatzaren 24ra bitartean, astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 7etara eta larunbatetan eguerdiko 12etatik 2etara, 'Gerrako haurrak' erakusketa ikusteko aukera dago Kultur etxean. Erakusketa honetan 15 gatazka armatutako argazkiak biltzen dira. Lehenengoak 1989koak dira, El Salvadorren ateratakoak, eta berrienak berriak, Sierra Leona eta Kosovokoak, 1999. urtearen erdialdekoak.

'Hitzak Patriketan'

Kutxaren bitartez, 'Hitzak patriketan' haurrentzako antzerkia izango da maiatzaren 28an, Antzokian, 17:30ean. Iñaki Beraetxe eta Aitzpea Goenaga dira antzezlaneko protagonistak.

'Danborren erritmora'

Donato Goyenecheren 'Danborren erritmora' kontzertua entzun ahal izango da, maiatzaren 28an, Antzokian, gaueko 10,15ean, Kutxaren laguntzaz.

Leitzarango Trenbidetik ibilaldia, maiatzaren 23an

Datorren igandean, maiatzak 23, goizeko 9etan plazatik abiatuta, Leitzarango Trenbidetik bizikleta ibilaldia antolatuko du Mendi Taldeak. Lehenengo atalean, Ordiziara bizikletaz joango dira, tren hartu eta Andoaina iristeko. Leitzarango Trenbide zaharra hartu eta Leitzaraino joango dira ondoren. Nafarroako herri honetan bazkaldu eta berriro ere Andoaina itzuliko dira, tren hartu eta etxera itzultzeko.

Bizikletaz gain, oinez ere egin daiteke ibilaldi bera. Lau bat orduko ibilaldia da. Kasu honetan ere, ordu berean, goizeko 9etan, herriko plazara gerturatu eta autoetan egingo da bidaia.

Hori bai, Kultur etxean izena emateko garaian, ibilaldia oinez edo bizikletaz egin nahi den adierazi behar da. Bazkaria norberak eraman beharko du.

Ibilaldia Leioan

Bizkaiko Ikastolen festa, Ibilaldia 2004, maiatzaren 30ean, Leioan ospatuko da aurten eta bertara joateko autobusa antolatze-ko asmoa dago, gutxienez 20 laguneko taldea elkartzen bada. Izena maiatzaren 26a baino lehen eman behar da, Kultur etxean arratsaldeko 7ak arte (943 160338). Lanean ari direnentzako, 6 euro kostako da autobuseko txartela eta ikasle eta langabetuentzatko, 3 euro. Taldea osatuta autobusa antolatuko balitz, plazatik, goizeko 9,30etan aterako litzateke.

Jubilatuak Lizarrara

Zahar Egoitzatik antolatuta, Lizarra irteera egingo da ekainaren 3an, goizeko 8,30etan abiatuta. Txartelak salgai daude maiatzaren 22tik aurrera.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu beasaindar giztiori!

Garbitasunak

OXEPI

☎ 607 140 721 ZALDIBIA

Biok ZERBITZUAK, S.L.

Enpresetako aholkularitza orokorra

Errenta aitorpenak egiten ditugu

Astelehenetik ostiralera
8:00 - 13:00 / 15:00 - 19:00

☎ 943 88 44 00 Goierri, 12 ORDIZIA www.biokzerbitzuak.com

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA

Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27 BEASAIN

2.138 biztanle ditu herriak

Martxoaren bukaerako datuen arabera 2.138 pertsona bizi dira Idiazabalen. Zenbakiek erakusten dute 2003ko urtariletik aurtengo urtarilerara 68 biztanle gehiago dituela herriak. Goranzko joerak bere hartan jarraitu du aurtengo lehenengo hiru hilabeteetan. Denbora horretan 12 biztanle gehiago zenbatu ditu Udalak.

Hazkunde horren zergatia datu hauek erakusten dute: iaz 30 haur jaio ziren Idiazabalen eta 19 herritar hil ziren. Kanpotik 108 lagun etorri ziren Idiazabala bizitzera, eta herrian zeuden 53 pertsonak beste herri batzuetara alde egin zuten. Kanpotik etorritakoen erdia baino gehiago

Goierriko herrietatik etorri dira. Beasain, Ordizia eta Lazkao dira zerrendako lehendabizikoak. Atzeritik 5 lagun etorri dira Idiazabala bizitzera, Ekuadorretik, Marokotik, Poloniatik eta Portugaldik. Herritik alde egin duten gehiengoak Gipuzkoako beste lekuren batera jo dute. Beasain, Donostia eta Ordizia daude zerrendan lehendabizikoak.

Idiazabalek martxoaren bukaeran zituen 2.138 biztanleen %85 Gipuzkoan jaiotakoak dira, % 5 Espainiako estatuan, % 4 Euskal Herriko beste herrialdeetan jaio ziren, gainerakoak atzeritik etortakoak dira.

San Adrian eguna

Ekainaren 6an ospatuko da San Adriango erromeria. Otzaurterainoko bidea autobusean egiteko eta koban banatzen diren baleak eskuratzeko Udaletxean eman behar da izena. Epea ekainaren 3an bukatzen da.

Gazta Eguna

Gazta Egunaren antolatzaileek oharra kaleratu dute egun hori antolatzen lagundu zuten herritar, elkarte eta erakundeei eskerak emanez. Gazta Batzordeak aurtengo jaia ondo joan zela azpimarratu du. Datorren urteko ediziorako jai gunearen antolaketa berriak izandako harrera ona kontuan hartuko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Eusko Ikaskuntza – Udala

Eusko Ikaskuntzak eta Udalak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Eusko Ikaskuntzak hitzaldiak antolatu eta Idiazabali buruzko ikerketak egiteko aukera eskainiko dio Udalari. Gainera, erakunde horrek argitaratutako liburu bilduma liburutegira ekarriko dute.

Jubilatuen Elkartea

Jubilatuen Elkartek antolatuta Olaberriako 'Zeba' koruak kontzertua eskainiko du maiatzaren 21ean (ostirala) arratsaldeko 7.30etan Pilar Eneako lorategian. Ekainaren 3rako Lizarra eta Iratxera eskursioa antolatu dute.



Erregionalak garaipenetik gertu

Idiazabalgo taldeak penaltietan galdu zuen Erregionalen bigarren mailako finala. Herriko taldeak Euskaldunaren aurka neurtu zituen indarrak Zubietan, maiatzaren 15ean, jokaturako partiduan. Taldeak herritarren animoak eta babesak jaso zituen. Kirol Elkartek antolatuta bi autobus joan ziren Zubietara partidua ikustera. Finala irabazi gabe baina lan bikaina eginda bukatu du Erregionalen taldeak aurtengo denboraldia.



Neska jubenilek denboraldi ona

Jubenil mailako neskek bigarren postuan bukatu dute liga. Taldeak denboraldi oso ona egin du, denboraldiko bi txapelketetan sailkapeneko goiko postuetan ibili baita. Uztailean, herriko neskek Bartzelonan jokatu den nazioarteko txapelketan parte hartuko dute. Bertara joango dira, Maitena, Maite, Aiora, Nerea, Oihane, Laida, Rakel, Aintzane, Alaitz eta Nagore. Berarekin Nagore eta Gorka entrenatzaileak joango dira. Bartzelonako egonaldiarekin bukatuko du taldeak aurtengo denboraldia.

Asteburuko partiduak

Infantil mailako neskek larunbatean jokatu dute goizeko 9,30etan eta alebin mailako mutilek goizeko 11,30etan Zelako kiroldegian.

Xabier Urteaga

Igandean

III. Zegama-Aizkorri mendi maratoia

Ia 500 korrikalarik agertu bazuten ere Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia korritzeko asmoa, antolakuntzak 330 lagun hartu ditu maratoia korritzeko.

Aurtengoan, Munduko txapelketa izateak, Espainiako Estatutik, Italia, Suiza eta Frantziatik ere korrikalariak erakarri ditu. Hala ere gipuzkoarrak izango dira bertan parte hartuko duten gehienak, 180 inguru hain zuzen ere. Bestalde, Euskal Herriko lehen txapelketa ere jokoan

izango da igandean. Korrikalari hoberenek iazko marka dute buruan eta beraien asmoa errekorra jartzea da Zegama-Aizkorri. Gizonezkoetan erreferentzia iaz, Fernando Garcia Herrerosen jarria da: 4 ordu 8 minutu eta 44 segundu eta emakumezkoetan Esther Hernandez Casahugak jarria, 5 ordu, 08 minutu eta 52 segundu.

Lehen korrikalariak bezaraz, 13:00ak aldera Zegaman izatea aurreikusten da.



Lehenengo Jaunartzea

Joan den igandean Lehenengo Jaunartzea hartu zuten 8 zegamar gaztetxoek. Egun alaia izan zen beraientzat eta beren familientzat igandekoa. Hona hemen izenak: Joanes Etxaide, Ioritz Etxeberria, Imanol Otaegi, Sheila Rey, Josune Azurmendi, Luis Malkorra, Laida Ormazabal eta Oihana Arizkorreta.

Ekaineko elizkizun bereziak

Ekainak 6, igandea: 11:00etan: Santu Espiritun Meza Mikel Garziandiaren eskutik. 12:00etan: Idiazabalдарrei harrera Gurutze Santuko Ermitan.

Ekainak 13, igandea: 11:00etan: San Adrianen Meza, Bittorio Zabalgogaskoren eskutik.

Ekainak 29, asteartea: 19:00etan: San Pedro Ermitan Meza Bittorio Zabalgogaskoren eskutik.

Oharra, goizeko 9etako mezarik ez da izango San Martin Parrokian.

Arantzazura peregrinazioa

Maiatzaren 30 eta 31n izango dugu aurtengoan Arantzazuko Peregrinazioa. Hona hemen bi egunetako egitaraua. Igande arratsaldean, arratsaldeko 5etan autobusa izango da Kooperatiba aurrean Arantzazura garai horretan joan nahi duenarentzat. Aurten ere, asteleheneko meza ondoren argazkia aterako dugu herritar guztiok.

Maiatzak 30, igandea:

8:00etan: Arantzazurako lehen irteera autobusez Apeaderoraino.

9:00etan: Arantzazurako 2. irteera autobusez Apeaderoraino.

10:00etan: Arantzazurako 3. irteera autobusez Apeaderoraino.

13:00-13:30ak aldera: Bazkaria Udalak eskainita.

17:00ak aldera: Peregrinoen azken txanpa Arantzazuraino.

17:00etan: Zegamatik, Kooperatiba aurretik Arantzazura autobusa izango da garai horretan joan nahi duenarentzat.

20:00etan: Errosarioa Santutegian.

20:00etan: Autobusa Zegamara.

21:00etan: Afaria.

Oharra: Elizako portikuan, ohiturari jarraituz, gastuei aurre egiteko herritarren laguntza jasotzen da, bai larunbateko meza aurretik eta ondoren, bai autobusen irteeretan eta baita igandeko meza aurretik eta ondorenean ere.

Maiatzak 31, astelehena:

8:00etan: Autobusa Zegamatik Arantzazura.

10:15ean: Goiko Bentan herritarrek elkartu eta Santutegiraino prozesioa herriko agintari eta txistulariekin.

10:30ean: Meza. Ondoren, santutegi aurrean, bertaratutako zegamar guztiok elkarrekin argazki bat aterako dugu, aurrekoen usadioa berreskuratuz.

13:30ean: Bazkaria.

15:00ak aldera: Zegamara oinez datozenen irteera.

16:30ean: Zegamara autobusez itzuliko direnentzat irteera.

18:00ak aldera: Merienda Oazurtzen Udalak eskainita.

19:00ak aldera: Oinez datozenei ongi etorria San Bartolome Ermitaren ondoan, eta haurrentzat goxokiak.

19:15 aldera: Ama Birjinaren ongi etorria Zupurrutin eta bere ondoren Prozesioa San Martin Parrokira sartuko da herriko txistularien laguntzarekin. San Martin parrokian Agurra (Salbea) bertaratuei.

Ondoren: Kasinoko XVI. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa plazan.

19:30ean: Otarteko eta ardo banaketa udal arkupeetan.

21:00etan: Afaria Udaletxeko arkupeetan trikitilarekin.

Izen-emateak: Autobusetarako izena eman eta txartela jaso behar da udaletxean maiatzaren 26 aurretik. Igande goizekoetarako ezik. Herrian erroldatuek lehentasuna izango dute.

Pazkoa bigarreneko afaria

Pazkoa bigarreneko afarirako udaletxeko arkupeetan tokia hartzeko izenematea maiatzaren 26 aurretik egin behar da.

Edurne Albizu

Tobera Musika Eskolan

Helduek ere musika ikasteko aukera

Zegama, Segura eta Zeraingo Tobera Musika Eskolak, berziki, helduen musika irakas-kuntzari garrantzia eman nahi dio 2004-2005 ikasturtean. Toberaren eskutik, 16 urtetik gorako gazte eta helduek musikaren mundua ezagutzeko eta sakontzeko aukera izango dute. *"Helduen segmentuari begira luzatzen da gehienbat proposamen hau, jakin bada-kigu-eta, asko direla bestela-ko pretentsiorik gabe musika egiten ikasiz gozatu nahiko luketenak"*, diote Toberako-ek. Gauzak honela, musikare-kiko zaletasunaren urrats bat gehiago ematea bezala aur-kezten du Tobera Musika Es-kolak.

2 urteko ikastaroa

2 urtez musika-hizkuntzako ezagupenak jasoko ditu hel-duen taldeak, eta hasiera-ha-

sieratik musika-tresna auke-ratzeko parada izango dute. Musika-hizkuntzako irakas-gaia helduen beharretara eta baldintzetara egokitzeari es-ker lortu da bi urtera ekartzea. Honek tresna bat jo ahal iza-teko oinarritzko ezagupenak emango dizkie ikasle helduei. Astean 90 minutuko saio ba-karra edo 45 minutuko bi saio emango dira, ikasleen nahia-ren arabera. Tresnaren ka-suan, ordu erdi emango da as-tero. Ordutegia bera ere, ize-na ematen dutenei ondoen egokitzen zaiena izango da. Taldea osatzeko, gutxienez, 6 lagun beharko dira.

Matrikula irekita

Helduek aukera badute ere, ohiko musika irakaskuntza 4 urtetik gorako haurrek izaten dute. Bai helduek eta bai hau-rrek, maiatzaren 27-28ra arte-



ko epea dute izena emateko. Horretarako, Zegama eta Se-gurako Kultur etxeetara jo behar da. Ordutegia, arratsal-deko 6etatik 8etara bitartekoa izango da. Zerainen kasuan, eskolako Zuzendaritza Bat-zordean kide den Joxe Ma-nuel Oriarengana jo besterik ez dago.

Errifak

Urteroko ohiturari jarraituz, Tobera Musika Eskolak errif-ak atera ditu bere diru beha-rrak asetzen laguntzeko. Eroski Bidaia eta Joxe Te-lleria Aseguruak babestu dute zozketa eta lerro hauetatik es-kerrak eman nahi dizkie bi enpresa horiei. Horrekin ba-tera, errifak erosteko deia lu-

zatu nahi dute Tobera Musika Eskolakoei.

Gitarra entzunaldia

Urtean zehar hainbat ekintza egin ditu Tobera Musika Es-kolak. Argazkia da horren adibide. Aurrerago ere beste batzuk etorriko dira. Kasu honetan, maiatzaren 24koa aipatuko dugu. Zegamako Kultur etxean izango da, arratsaldeko 6etan. Gitarra ikas-leen jarduna izango da. Ibai Arrizabalga, Joseba De la Hera, Laida Ormazabal, Ha-ritz Garai, Luis Malkorra, Unai Aierbe, Arkaitz Urbiz-tondo, Nelson Bautista, Ene-ritz Zabaleta eta Maria Alus-tiza izango dira protagonis-tak.

IN AUSTI
KARROZERIA

N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Charter, Oskarbi, Osiña, Orlegi eta Orlegi Natxo. **Ordizia:** Garmendia, Sabino, Muño, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Rufi, Lasa, Viaña eta Osaki. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Ahizpak. **Ormaiztegi:** Iñaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda denda. **Legazpi:** Jabi harategia.



AUSGEGI

Urdaneta, 41
☎-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



San Isidro eguneko ospakizuna

Maiatzaren 15ak San Isidro-rekin batera ekarri digu eguraldi ederra eta gardena. Jende guztiaren ahotan dabiltza aurtengo neguari buruzko gorra-beherak. Hotza, umela eta ez dakit zenbat lora gehiago jaso ditu aurtengo neguak. Dena den Pello Zabalaren "Natuaren Mintzoa" liburutik jaso ditugun datuen arabera lehenago ere izan dira modu honetako maiatzak. "1984an 30 egunetan izan genuen prezipitaziorik, eta 11 egunetan laino itxia inguruan genuela." Eta maiatzeko urak ongi-etorriak zirenaren adierazgarri dira ondorengo atso-

titz hauek berriz: "Maiatz eurite, urte ogite" "Maiatzean mila euri, mila ogi" "Maiatzeko euria, urria baino hobia: urte guztiko ogia".

Guzti hauek honela, giro paregabeen ospatu zen Gaintzan joan zen larunbateko San Isidro eguneko afaria. 30-40 laguneko taldea bildu zen mahai-inguruan eta jan-edanik ez zen falta izan. Bertsoak nahi adina eta txiste ugari era kontatu zituzten "Zeberio" eta "Mañukorta" bertsolariak eta dantzarako ere parada izan zen "Jexuxen Jazpaina"ren doinu ederrei esker.

Omenaldi edo opari bana-



ketarako tarteak ere izan zen eta aurtengoan Sokobioko Joxe Mariri suertatu zitzaion. 1979tik 2003 urte artean huts gehiegirik egin gabe udal ordezkari izan baita. Batzuetan Alkate beste batzuetan zinegotzi baina betik Udal agintaritzatik hurbil. Herritar guztien izenean eskerrak eman

zizkion orain Alkate den Xantik.

Ia, datorren urtean ere horrelakoxe jai giroan biltzeko suertean garen denok!!

Eta amaitzeko, eguraldiaren aitzakirik gabe, baserritarrek badute orain zeregina eta eutsi goiari!

Altzagarate auzoko jaiak

Maiatzaren 23an Altzagarate gainean Azintzio eguna ospatuko da. Bertaratzen direnak ondorengo egitaraua aurkituko dute:

Eguerdiko 12etan bertako baselizan meza ospatuko da.

Ondoren Jokin Sorozabal eta Mikel Mendizabal bertsolarien saioa izango da Epelde eta Larrañaga trikitilarien jardunaz alaiturik.

Altzagarateko jatetxean

bazkaltzera geratzen direnek bertsolari eta trikitilarien konpainia izango dute lagun-garri.

Arratsaldean zehar bertsolari eta trikitilariak beraien jardunari helduko diote berriro.

Altzagarateko Amabirjina
Herritarrentzat hain maitatua dugun Altzagarateko Amabirjinaren irudia egun haue-

KZ gunea

Udaletxean kokatuta dagoen Kz guneako ikastaroak amaitutzat eman ondoren herritar guztiei nabigatzen jarraitzeko aukera zabaldu nahi da. KZgunean goizeko 8etatik gaueko 10etara bitartean ibili ahal izango da, horretarako udaletxean izena eman eta giltza emango zaio nahi duenean bertaratzeko.

Bestalde Kzguneko monitorea Altzagan izango da ostiraleroko, arratsaldeko 4etatik 8etara, sortzen diren arazo eta azalpenak emateko.

tan Altzagarateko baselizatik kanpo aurkitzen da. Arrazoia Donostiako Elizbarrutiak antolatu duen Errenazimenduko 40 irudiren erakusketan aur-

kitzen dela. Erakusketa apirilaren 27tik ekainaren 6ra izango da ikusgai Donostiako Gotzaindegian.

Saharar haurrak etxean hartzeko gonbitea

Maiatzaren 7an kultur etxeko aretoan udal ordezkariak Saharako kanpamentuetara eginko bidaian osaturiko ikusentzunezkoa ikusteko aukera izan zen.

Ikusentzunezkoaren helburua sahararren kanpamentuetan bizi duten derrigorrezko egoeraz herritarrek sentsibilizatu eta kontzientzia hartzea izan zen. Aldi berean udara gure artean pasa dezaten Saharar haurrak hartzeko familiak behar direla informatzeko ere balio izan zuen,

aurtengoan udaletik ahalegin berezia egiten ari baitira aipatu egoeran bizi diren haurrak uda gure herriko familietan igaro ahal dezaten. Beraien osasun eta garapenarentzat erabat onuragarria izango bailitzateke udara gure artean igarotzea. Beraz lerro hauetatik ere gonbidapen zabalena eta dei berezia egiten zaizue udan zuen familietan haurren bat har dezazuen.

Aitziber Murua



Ormaiztegi Saharako Miyec herriarekin anaikideturik dago.

Ur errezioben ordainketa

Gipuzkoako ur kontsortzioak Ormaiztegiko abonatuak jakinarazi nahi dizue apirilaren 30ko datarekin 2004 urteko lehenengo hiruhilabeteko ur eta zabor errezioboak bidali zituztela. Edozein erreklamazio abonatuaren 902 30 22 22 telefonon egin daiteke. Erreklamaziorako azken eguna maiatzaren 30a da eta ondorioz edozein erreklamazio egun hori baino lehen egin beharko da. Era berean, borondatez ordaintzeko azken eguna ekainaren 29a izango dela azaltzen zaizue.



Goierritarra

Goierri aldizkaria jasotzeko
ez da derrigorrezkoa
12 euroak ordaintzea.
Goierri kanpo jasotzeko bai.

etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Tfnoa.: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro kobratuko dizkizugu kontu korrontetik
Ipar Euskal Herrian edo European jasotzeko 24 euro ordaindu behar dira eta Europaz
kanpo jasotzeko 36 euro.

Poltsikoko ikuskizunak Barrenan


Kafe-antzerkia, kafe-kontzertua eta antzeko neurri txikiko ikuskizunak eskaintzeko filsofiarekin jarraituz, aurten 5 ikuskizun emango dira Barrena Kultur Etxeko atarian. Jazz saio, antzerki edota kabaret itxurako ikuskizunak eskaintzeko leku egokia berau, artista eta publikoaren arteko sintonia eta kideasuna sortu eta eragiteko beharrezkoa den giroa lortzeko leku aproposa. 13. aldia izango da aurtengoa eta jarraian eskainiko dena:

Programazioa maiatzaren 21ean, ostirala, Karlos Gimenezek, musikari eta pianojolea, zabalduko du '12 geltoki' bere azken lanarekin.

Maiatzaren 28an Jorge Sanchez (ahotsa eta gitarra) eta Eva Niño (biolontxelo) bikoteak 'El espejo de tu vida' bere azken lana aurkeztuko du.

Ekainaren 4an Kike Biguri eta Javier Marcosen 'Kosa de dos' eta Guirlache' taldearen eskutik kafe-antzerki umoretsua izango da. Bi lan eskainiko dituzte, 'Te amare hasta que me mate' eta 'El apagon'.

Ekainaren 5ean bi ekitaldi izango dira. Alde batetik Kimetz Litertura Lehiaketan irabazleak izan diren lanen sari banaketa egingo da eta bestetik Javier Garaialde Jazz boskotearen lana entzuteko aukera izango da.



Programazioa ekainaren 11n amaituko da Ramon Agirre eta Joserra Senperenaren ka-antzerki batekin. Hauek '7 gezur txiki' euren azken lana eskainiko dute. Ikuskizun guztiak iluntzeko 22:30ean hasiko dira, esan bezala Barrena Kultur Etxeko atarian.

Aitor Calvillo

Denon konpromisoa

Euskararen normalizazio bidean denok dugu zer egina, bakoitzak ahal duen neurrian eta horretan lanean dihardu Kontseiluak. Makina bat elkarte eta gizarte eragilek hartuak dituzte bide hori jorratzeko hainbat konpromiso. Norbanakoen txanda da oraingoa eta horretarako 29 konpromiso mailarekin orriak eskuragarri daude ostegunero 18:30etik 20:30era bitartean eta larunbatero 11:00etatik 13:00etara Barrenan ipinita egongo den mahaian.

Festa atarian

Santa Ana herriko zaindaria konturatzerako bertan izango dugu. Hori dela eta Udala festa egitaraua lantzen ari da jada eta herriko elkarte eta koadrilei lehen bilera deiak luzatu ere bai. Koadrilei, hain zuzen, gaurko egin zaie deia, hilak 21, arratsaldeko 7etan Barrenan elkartzeko.

San Juan sua

30. urteurrena ospatuko da aurtengoan eta horretarako ekitaldi berezi-berezi bat antolatzeak dira San Juan Sua batzordekoak. Ekainaren 23ko gauean suaren inguruko dantzak ez dira faltako eta horretarako deia luzatu dute bertan parte hartu nahi duen orok hemedik aurrerako ostiraletan Santa Ana ikastetxean agertu besterik ez duela esanaz. Iluntzeko 8etan egingo dira juntadizo horiek eta bertan egitaraua prestatzeaz gain entseguak egingo dira.

Saskibalo txapelketa

Koadrila Arteko Futbol Txapelketa jokoan den bitartean Saskibalo Txapelketa ere abian jartzekoa da. Ekainaren 11a bitartean izena emateko epea zabalik izango da eta horretarako Olano Taberna edota Majori Kiroldegian izango da aukera. Ohi bezala parte hartzea doakoa izango da eta antolatzaileek dozena pare bat talde espero dituzte.

II. Duatloi txapelketa

Eguzkia ikusi nahi badugu duatloi txapelketa antolatzea besterik ez dago. Iaz bezala beroa izan zuten lagun duatloian parte hartu zuten 90 lagunek. Euskadiko Txapelketa zen jokoan eta oraingoa ere 14 km korrika, 70 inguru txirrindu gainean eta beste 7 km korrika egin beharreko lana. Nabarmenezkoa Joxi Garmendia herritarrak lortutako bosgarren postua.

Futbola

Errejonial mailako futbol taldeak ezin izan dio mailari eutsi eta datorren urtean bigarren mailan izango da. Preferenten ari den taldea, aldiz, bi neurketen faltan beheko postuetan dago baina emaitza onak lortuz gero mailari eutsiko dio.

ETXEGINTZARAKO MATERIALAK **APAIN** KONTENEDOREAK



Bainugela eta
sukaldeetarako
azulejo eta
Gres-en
aukera zabala.



Porcelanosa, Venus,
Keraben, Vives...



Bainugelarako
beharrezko
osagai
guztiak,
exposizioan
ikusgai.



APAIN

ETXEGINTZAKO MATERIALAK APAIN, S.L.

Kontenedoreak
Garraioak garabirekin
Mallutx, 6 - 20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa)
E-mail: apain@infonegocio.com
Telf.: 943 88 00 77 - Fax: 943 88 82 60



Altamira Auzoa z/g
Tfnoa.: 9438 880 862
Faxa: 943 164 121
012282aa@hezkontza.net

HAUR HEZKUNTZA (GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)


Iraupena 2000 ordu (2 ikasturte)

- Haurren mundura gerturatzen.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
 - > Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegia, Ludotekak...
 - > Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.

AURREMATRIKULA EPEA: Ekainaren 1etik 9ra

OIANGUREN BHI

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA





IKASTAROAK

KOADROAK

OPARIAK

Elosegi, 13 LAZKAO

EMAN EGURRA

zure etorkizunari!

943 85 21 74  943 85 22 65



Altzarigintzak behar dituen teknikari kualifikatuak prestatzen ditugu

ZURGINTZA eta ALTZARIGINTZA
LAN IRTEERAK

%95

ERDI MAILAKO ZIKLOA

LAN IRTEERAK: zur eta altzari enpresetan

- Biltegi kontrolatzailea
- Osagaien mekanizatzailea
- Akabera aplikatzailea

%100

GOI MAILAKO ZIKLOA

LAN IRTEERAK: zur eta altzari enpreset

- Programaketan Teknikaria
- Antolamendu Teknikaria
- Laborategian Teknikaria

Aurrematrikulazioa
ekainaren 1etik 9ra

Matrikulazioa
uztailaren 1etik 7ra



www.urola.org





Musika eskola

Hilaren 10tik ekainaren 4ra arte irekia egongo da ikasturte berrirako matrikulazio epea. Adin mugarik ez dago eta aukera ezberdin asko dira musika edo instrumenturen bat jotzen ikasteko. Orain arte prozesu bat eramaten dute erreferentzi gisa. Denera hiru ziklotan osatzen dute eta hau umeen urteen arabera izaten da. Txikienak, hau da; 4 eta 7 urte bitartekoak lehen zikloan sartzen dira musika munduaren berri ikasten dutelarik. Kurtso hauek gainditzean bigarrenera pasatzen dira hizkuntz musikala eta instrumenturen bat ikasteko aukera dutelarik eta azkenik, harmonia eta konboa izaten dute ikasgai. Honez gain azpimarratu kurtso hasieratik taldeka hasten direla lan egiten.

Zein aukera eta nola

Beste urtetan ematen direnaz gain (alboka, pianoa, tekladua, gitarra akustikoa...), aurren beste aukera ezberdin batzuk sortu dira; zeharkako

flauta, dultzaina eta saxofoia. Honekin batera trikitixa eta panderoa berreskuratuko litzateke. Honetarako adinik ez dagoenez nahi duenak eman dezake matrikula izena. Honetarako ikastolara azaldu edo 626894441 telefonora dei dezakezue. Hori dena astelehenetik ostirala bitartean, 12:30 / 14:00 edo 17:30 / 19:30. Izen emateko orduan norberaren gaitasun edo jakinduriaren arabera egiten dira taldeak.

Emanaldia

Urte guztian eginiko lanak emandako fruitua ikusteko aukera izango dugu musika eskolan aritu diren ikasleek ekainaren 18an emango baitute erakustaldia herriko plazan. Arratsaldeko 7etan hasiko da ikasturte amaierako kontzertua eta hemendik gonbidapena bidaltzea besterik ez da geratzen.

Liluratura saioa

Maiatzaren 27an, arratsaldeko 7etan, Gerriko Txokoan, Xabier Mendiguren Elizegiren 'Arbelaren gainean' liburuaren inguruko solasaldia egingo da, Goierriko Euskal Eskolak antolatuta. Saio honetan parte hartzeko beharrezkoa da liburua irakurrita joatea.

Eranskailu eta errifak

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartetik bi ohar jaso ditugu. Alde batetik, Goierriko Euskal Eskolak apirileko kulturaldirako atera zuen errifak sariduna baduela jakin dugu.: 22. zenbakia zuen Teodoro Nazabali egokitu zaio Hondarribiko Artizarra landa-etxean bi lagunentzako asteburu pasa joateko saria. Saritua zoriontzeaz gain, antolatzaileek errifa saltzaile eta erostunei eskerrak eman nahi dizkie.

Bestetik, Sanprudentziotako aurtengo eranskailua erri-maz osatutako aterkia izan da. Errima horiek erabiliz bertso ugari kantatu direla badakigu. Bertso horiek idaztea, ordea, soilik hiru talde animatu dira: Iraultza Taldea, Zaldibiko Taldea eta Zantantzarrak. Horrela, Goierriko Euskal Eskolako batzordeak horrela erabakiata, hiru taldeei eman zaie saria: 'Joxe Miel Iztueta, Lazkao Txikiren azken afaria' liburu baina, hain zuzen. Kasu honetan ere; zorionak eta eskerrik asko eranskailua banatzen lagundu diezuenoi eta borondatezko diru-laguntza eman diezuenoi Euskal eskolaren izenean.

Maidar Urretabizkaiaren denda zabalik

Pasa zen ostiralean denda berria zabaldu zuen Maidar Urretabizkaia lazkaotarrak. Hainbat eta hainbat lehiaketa irabazi ondoren pintaketa munduaren inguruan, berak eginiko koa-droak salgai jarri ditu Elozegi kalean dagoen Maiddart denda. Honekin batera arropa ere jarri du salgai bai emakume zein gizonentzat eta ooraindik jarri berria dagoenez jenero gehiena iristeko dago. Hau gutxi balitz pintura ikastaroa ere bertan emateko aukera izango da, beraz, norbait interesatua balego dendatik pasatzea izango litzateke aukerarik egokienetako bat.

Jubenilak mailaz igo

Jubenil mailako jokalariek eman digute denboraldi bukaera honetan berri pozgarriena. Partidu baten faltan lortu zuten mailaz igotzea eta hori zorindu beharrean dago. Azken partidua berriz pasa den larunbatean jokatu zuten eta nahiz eta mailaz igoak egon lehen postua lortzeko aukera zuten. Igotzea gutxi balitz azken partidua ere irabazi egin zuten 5 eta 2 Vasconia taldearen aurka. Datorren denboraldian berriz lehen mailan arituko dira eta bukatu duten ilusio berdinarekin hastea ez litzateke batere txarra izango.

Helduek, berriz, orain bi aste jokatu zuten azken partidua. Hauek ere Lazkaon neurtu ziren Landetxa taldearen aurka eta 4 eta 1eko emaitzarekin bukatu arren ezin izan zieten bali-lio izan mailaz igotzeko beraiekin berdinduta zegoen taldeak ere irabazi baitzuen, Ondarruk hain zuzen.

Aitor Tello

III. Zegama-Aizkorri mendi maratoia jokatuko da maiatzaren 23an *Munduko Koparako baligarria izango da aurten*

Euskal Herriko txapelketa ere jokatuko da maiatzaren 23an Zegama-Aizkorri mendi maratoian. Juan Ignazio Galdos Zegamako alkateak eta Alberto Aierbe antolatzaile taldekoak, hainbesteko arrakasta lortu duen proba honen berri eman digute. Gomendioak ere eman dizkiete, bai korrikalariei eta bai ikusleei ere.

Munduko Koparako baligarria izateko, zein prozesu jarraitu da? Zein pauso eman dira hori lortzeko?

Juan Ignazio Galdos. Aurreko bi urtetan Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia jokatu izana eta antolakuntza ona erakutsi izana giltzarria izan da aurtengoan Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia Munduko Kopan egoteko. Jakina da, frogia iaz Estatuko Koparako baligarria izan zela, eta honen ondorioz, zirkuitu internazionalan pisu handia zuen jendea gure artean egon zen, eta egia esan behar bada, oso inpresio ona eraman zuten Zegama-Aizkorri Mendi Maratoitik. Esan dezakegu lan asko eta ona egin dela, baina uzta pentsatzen genuen baino lehenago iritsi zaigu. Edozein kasutan garbi utzi behar da, gure abal garrantzitsuen partehartzaile eta ikuslegoarena dela. Beraiek dira Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia 3. edizioan maila gorenera igo dutenak. Noski, esandako



Juan Ignazio Galdos: "Munduko Kopan 7 proba daude eta Zegamakoa da antolakuntza amateurra duen bakarra".

bermea lortzeko uka ezina da, esan den moduan, aurrean garrantzitsua dagoela. Lan honen atzean Herri oso bat dago, Zegamako herria eta herritarrak daude. Kontuan hartu eta azpimarratu behar da, 200 zegamar inguru murgiltzen direla muxutruk Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiko antolakuntza lanetan, Ameztu Mendi Elkarteko gidaritzape ezinhobean, eta hor islatzen dela korrikalariek eta ikusleak aipatzen duten antolakuntza onaren muina. Hala ere ezin dut ahaztu Gipuzkoako eta Euskadiko Mendizale Federazioetatik frogia hau go-renera eramateko izan dugun laguntza; eskertzekoa benetan. Bestalde, bere finantziarioarekin laguntzen diguten

Erakunde (Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia) eta enpresen laguntza ere ezinbestekoa da, eta oso eskertuta gaude. Beraz, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia munduko kopan egotea erakunde eta lagun askoren lanari esker izan da, auzolanaren ondorioa dela esango nuke, ahaztu gabe frogia ospatzen den paraje liluragarri eta erakargarriak.

Zein baldintza behar dira Munduko Koparako proba bat izateko?

J.I.G.- Federazio Internazionalak bere arauak ditu, eta honenbestez hauen barnean sartzea ezinbestekoa da. Baina garrantzitsuen antolakuntza on bat izatea da, korrikalariak zaintzea, gozatzea, eta

nola ez frogak jarraitzaileak izatea. Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiak erakutsi du ibilbide osoan ikuslego asko dituela, eta honek zeresan handia du.

Munduko Koparako baligarria den honetan, dataz aldatu behar izan duzue mendi maratoia. Zer suposatzen du horrek?

J.I.G.- Bai. Nazioarteko Federazioak Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia bere egitarauan sartu zuenean, maiatzaren 23ko data finkatu zuen bere ospaketarako; hain zuzen ere, Munduko Kopa osatzen duten zazpi frogetatik lehena. Jakina da, aurreko bi urtetan uztailaren lehen igandean ospatu dela Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia, Aizkorri Lagunen Egunarekin bat eginez, eta aurtengo aldaketa gure borondatearen gainetik dagoen erabakian oinarritu da. Baina, frogia Munduko Kopan sartzeko aukera bakarra maiatzaren 23ko data onartzea zela kontuan izanik, atsegin handiz onartu dugu, honelako aukerak egunero ematen ez direlako. Edozein kasutan gogoratu nahi dut, aurtengoan Aizkorriko Lagunen Eguna uztailaren 4an ospatuko dugula.

Hain urte gutxian gauza handiak lortu ditu Zegama-Aizkorri maratoiak. Zer du berezia proba honen?

J.I.G.- Parajea, antolakuntza, ikuslegoa, sufrimendua; ez dakit. Zegamarrontzat berezia Aizkorri da, gure bizitzako zati garrantzitsua baita. Aurrez aurre dugu egunero, eta bertara begiratzen dugu

Juan Ignazio Galdos:
"Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia munduko kopan egotea erakunde eta lagun askoren lanari esker izan da, auzolanaren ondorioa da"

zein eguraldi egin behar duen jakiteko, eta esango nuke amets ere bertara begira egiten dugula. Herritarrok Aizkorri diogun maitasunean errotuta eta egiten ditugun ametsen ondorioz, 2000. urtean Aizkorriko Lagunen Elkartea eratu genuen. Zegama eta Aizkorri uztartu nahian eta gure herria eta Aizkorri lehen planora eramateko xedearekin Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia abian jartzea erabaki genuen, eta gutxika-gutxika aurreikusitako bidea egiten ari gara. Behar bada, lortutakoa filosofia honen inguruan egindako lan amankomunaren ondorioa da.

Aldaketaren bat egin behar izan al duzue Munduko Kopako proba delako?

Alberto Aierbe. Ezer berezirik ez da egin behar izan. Ibilbidearen atal bat aldatu dugu, baina ez Munduko Kopa delako. Bigarren kontroletik Aratza bitartean, kilometro batean aldaketa bat egin dugu. Basoko pista batzuk egin dira eta kamino itxura hori kentzeagatik, beste leku batek moldatu dugu ibilbidea. Batzuk kejatu dira, gogorra goa omen da. Desnibetan ez da aldatzen. Hori bai, denboran eragingo du, teknikoxeagoa da eta. Hala ere, ez dut uste, eguraldia medio, marka hausteko arazorik egongo denik, jende oso ona dator eta.

Nongo partehartzaileak etorriko dira?

A.A.- Italiar talde bat, Andorrako bat, iaz Munduko Kopan 7. gelditu zena, Kataluniako selekzioa, emakumezkoetan Munduko Kopako txapelduna eta txapeldunordea... 50 bat goierritarrak izango dira. Gipuzkoarrak, iaz baino gehiago izango di-

ra. Iparraldetik 15 laguneko talde bat dator. Munduko Kopa izanik internacionalagoa izango dela ematen du baina ez da horrela. Berriez gain, aurreko urteetakoak aurten ere hemen izango dira. Munduko Kopa izateak, maila, kalitatea ematen dio probari.

Partehartzaileen kopurua 300 lagunera mugatuta daukazu. Baina hori baino jende gehiagok eman du izena. Zein da kopuru hori jartzeko arrazoia? Aurrera begira zabaltzeko asmorik ba al dago?

A.A.- Arrazoiak bat baino gehiago dira. Maratoia antolatu genuen lehenengo urtean gauza handirik ez genekien eta horixe zen erabaki gabeko gauza bat. Han eta hemen galdezka arituta eta erreferentzia bezala Madrilekoa hartu genuen. Beste gauza batzuk ere kontuan hartu genituen: batetik, 300 laguneko koadri-la dezentea da eta azpiegitura aldetik Zegamak gehiago har-

tu ote dezakeen galdetu beharko litzateke. Aurrekontuak ere hor daude, zenbat eta gehiago izan aurrekontuak ere gora egiten du. Ingurugiroari egiten zaion inpaktoa ere kontuan hartu behar da. Ez da berdina 300 lagun toki beretik korrika pasatzea edo mila pasatzea. Beste arrazoi bat, eta ez txikiena, segurtasuna da. 300 lagun kontrolatzea errazagoa da. Gure helburua beti izan da, nahiz eta kopurua oso altua ez izan, parte hartzen duena ondo atenditzea, zainduta sentitu dadila. Protagonista sentitu daitezela guztiak, hainbeste sufritu behar duten proba batean.

Parte hartu izan duten guztiak beti antolakuntza nabarmendu izan dute.

A.A.- Gu saiatzen gara ahalik eta hobeto antolatzen. Korrikalariei inkesta bana pasatzen diegu non hobetu jakiteko. Gehiago handi batek be-

ti antolakuntza eta giroa azpimarratzen dute. Hemen afizio izugarria dago eta jendetza ikaragarria elkartzen da. Leku askotan korrikalariak jendeak egindako pasilloan joaten dira, Tourrean txirrindulariak joaten diren bezala. Ikusleen artean dorsalen zenbakiak banatzen ditugu eta jendeak izenez animatzen ditu korrikalariak. Korrikalariek hori izugarri estimatzen dute.

Euskal Herriko txapelketa jokatuko da aurten lehenengo aldiz.

A.A.- Euskal Mendi Federazioak erabaki du lehenengo txapelketa jokatzea. Orain arte, Kopa egon da, baina txapelketa proba bakarrean jokatzen da eta Zegama-Aizkorri mendi maratoia aukeratu dute horretarako. Lau mailatan banatuko da: gizonezkoetan eta emakumezkoetan, seniorrak eta beteranoak.


Zein gomendio emango zenieke korrikalariei?

A.A.- Zenbait lekutan ez arriskatzeko eskatzen diegu. Eta bestetik, abiatuailamentuetan, ondo hornitzeko, bai likido aldetik eta bai jan aldetik.

Eta ikusleei?

A.A.- Lehenik, antolatzaileen lana errespetatu eta haien esana betetzea. Bestetik, korrikalariei trabarik ez egitea. Oso garrantzitsua den beste puntu bat: minik egin gabe ibiltzea. Halako jendetza joanda, errazagoa da ikusleek mina hartzea, korrikalariek eurek baino. Azkenik, Otzaurteko bidea itxita egongo da goizeko 9ak aldetik 10ak aldera. Beraz, pazientziarekin hartzeko eskatuko nieke ikusleei, denbora dago eta.

ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA



Alberto Aierbe:
"Gure helburua beti izan da, nahiz eta kopurua oso altua ez izan, parte hartzen duena ondo atenditzea, zainduta sentitu dadila. Protagonista sentitu daitezela guztiak"

Arrano Beltza Euskal Herri Kirol Taldearen 25. urteurrenean

Herri kirol jaialdi erraldoia Beasainen

Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren topagune izango da

Beaingo jaietan herri kirol jaialdiak antolatzen dituen taldea Arrano Beltza Euskal Herri Kirol Taldea da. 25 urte daramatza eginkizun honetan. Aurten, zilarrezko ezteiak ospatzeko, maiatzaren 23an, eguerdiko 12etan, Gernika pasealekuan, azken 25 urte hauetan Beasainen izan diren harrijasotzaileak eta aizkolariak bilduko dira.

Zerrenda luzea da Beasaina inguratuko dena, belaunaldi ezberdinetako harrijasotzaileak eta aizkolariak bilduko baitira maiatzaren 23an. Jaialdiaren ondoren, guztiek elkarrekin, bazkaria egingo dute Kattalin erretegiaren, Arrano Beltza Euskal Herri Kirol Taldeak antolatuta.

Aizkolariak

Duela 25 urteko jaialdian Arria II.a eta Nemesio Arregi izan ziren. Harrezkeroztik pasatu direnak eta aurten ere Beasainen izango direnak ondorengoak dira: Joxe Ugarte-buru, Jabier Elorriaga, Agite, Mindegia, Nazabal, Joxe Aierbe, Arria V., Mendizabal, Olasagasti, Iñaki Aierbe,

Arrospide, Larretxea, Peña-garikano eta azkenaldian punta-puntan dabilen Iñaki Azurmendi herritarra.

Harrijasotzaileak

Perurena aita-semeak Beasainen izanak badira ere, aurten, pena handiz, ezin izango dute jaialdi erraldoi honetara etorri. Gainerakoan, Beasainen izango dira, harrijasotzaile munduko iragana eta oraina: Ibitegi (1990ean 285 kiloko harriarekin marka egina), Zelai, Goikoetxea, Iñaki Gorostidi, Saralegi (1999an 326 kiloko harriarekin marka egina), Goenatxo II., Izeta II, Izeta III, Izeta IV, Ostolaza eta Aimar Irigoien.



Maiatzaren 30ean ere herri kirolak

Arratsaldeko 7etan izango da maiatzaren 30eko herri kirol jaialdia, Gernika pasealekuan. Goizean, joaldunek egingo dute esna deia.

Aizkolarietan, Mindegia eta Azurmendi Arrospide eta Joxe Ugarte-buru ezkiotarraren aurka lehiatuko dira. Oraindik lana zehazteko badago ere, lan gogorra egin beharko dute antolatzaileek iragarri digutenez. Bi aizkolari gaztek ere aukera izango dute Beasainen lehiatzeko. 15 eta 16 urteko Aratz eta Ugaitz Mugerza anaiak izango dira nor baino nor.

Harrijasotzen ere, beste bi gazte: 18na urte dituzten Aimar Irigoien eta Hodei Izeta IV.

MUGAR

**ELEKTRIZITATEA
ARGIZTAPENAK**

E-mail: mugar@mugar.net
web-gunea: www.mugar.net

K21
KALITATEA

Euskal Pilota, 4 San Inazio, 8
☎ : 943 160 240 ☎ : 943 888 907
ORDIZIA BEASAIN
Faxa: 943 888 688

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

GUKlan

**Bainuko osagaiak
Berogintza
Iturgintza
Gasa**

Tel.: 943 161 277 Faxa: 943 160 933
Nafarroa Etorbidea, 27
BEASAIN
Tailerra: Okorro, 6 - ORDIZIA



Z E L A E T A

hortz klinika

IMPLANTE ZIRUGIA ETA IMPLANTE GAINEKO PROTESIAK



Galde iezaguzu eta konpromezu gabeko aurrekontu bat prestatuko dizugu.

ZELAETA HORTZ KLINIKA

Tfnoa. 943 161 018 Garmendia Otaola,5-Bajo Beasain

GARAI HORTZ KLINIKA

Tfnoa. 943 884 385 Filipinas,4-Bajo Ordizia

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

Jai Zoriontsuak !!!



Mariarats 10 Beasain
Tfnoa 943 88 86 84



Txindoki-Alkartasuna
Institutua

GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

INFORMATIKA SISTEMEN APLIKAZIOAK

(2000 ordu)

- Programazioa
- Sareak
- Internet
- Datu-baseak...

Praktikak bertako
edo Europako
enpresetan
egiteko aukera
(Leonardo Da Vinci
proiektua)



Ingurumen kudeaketa
ziurtagiria (**ISO14001**)
duen ikastexe bakarra

Aurrematrikula: Ekainaren 1etik 9ra

Email: txindoki-alkartasuna@euskalnet.net www.txindokialkartasuna.net

Ugartemendi, 6 20200 Beasain. Tlf: 943 880753

Beasaingo Zelan dardo taldekoak Las Vegaseko munduko txapelketan

Beasaingo Zelan dardo taldekoak Las Vegasen izan dira munduko txapelketan. Jose Ramon Parra eta Miguel Montoro bertako kideekin izan gara kirol hau gehixeago ezagutzeko asmoz.

Aurten Espainiako txapelketa irabazi zuten emakumezko mailan eta taldeka sailkapen orokorreko 9 postua lortu zuten. Hortik Beasaingo bi neska Sonia Hernandez eta Mari Carmen Rivela Las Vegaseko munduko txapelketa-
ra joan dira Espainiako selekzioarekin, hauez gain Zelan dardo taldeko neskak ere izan dira bertan. Apirilaren 26tik maiatzaren 2ra izan dira Las Vegasen. Soniak eta Mari Carmenek bigarren postua lortu dute, Espainiako selekzioarekin estatu batuarren aurka finala galdu ondoren.

Zelan dardo taldekoek, berriaz, amerikarrekin izandako gaizki ulertzea medio gizonetzkoen aurka jokatu beharra izan dute, orain jarritako erreklamazioari emango dioten erantzunaren zain daude.

Zelanekoentzat ikusgarria izan da munduko txapelketa-ko antolaketa, "300 dianatik gora zeuden lehiaketarako prest. Las Vegasen dena handi-
diro egiten da". Orokorrean,



Zutik, Espainiako selekzioarekin joan ziren Mari Carmen Rivela, Begoña Hernandez. Pikotxean, Zelan dardo taldeko Kontxi Garmendia, Marta Iraola eta Mertxe Gonzalez. Argazkia Las Vegaseko munduko txapelketan ateratakoa da.

mundu mailako dardo lehiaketetan Alemania da mailarik onena duen herrialdea.

Hasierak

Zelan tabernan dardoak botatzeko makina jarri zutenean, lagun arteko norgehiagokan hasi ziren. "Hasieran dardoren bat atetik kanpora ere joan zen baina pixkanaka ikasten joan gara", dio Miguel Montorok. Tabernako txapelketa antolatu zutenean federazioko pertsona bat azaldu zen eta berak animatu zituzten Trintxerpera txapelketa batetara joateko. Hortik hasi ziren talde bezala antolatzen. "Gertatu zaiguna da, taldea

ondo antolatu aurretik emaitza onak iristen hasi direla. Egoera honek hasieran pixka bat gainditu egin gintuen. Inongo laguntzarik gabe iritsi gara hona. Udalak 3 urtetan 1.000 euro eman dizkigu, gaintzekoa guk lortu beharra izan dugu".

Beraien lehen liga 2000-2001 denboraldian izan zen, taldeka 9. geratu ziren eta 1. eta 3. postuak lortu zituzten. Hortik Europako txapelketara joan ziren Sueziara. Han beraien mailan 5. postu bat lortuta itzuli ziren.

Duela gutxi hasi arren iguera nabarmena egin dute,

"hasi eta 3 urtetara Gipuzkoako lehiaketetan onenak izatera iritsi gara eta Espainiakoetan ere punta-puntan gabiltza. Lehiaketetan hain denbora gutxian aritu izateko emaitza bikaina da", dio Jose Ramon Parrak.

Tabernako giroa

Dardo taldeak tabernetan elkartzen dira eta bertan izaten dute egoitza. Zelan taldean adin guztietako 32 partaide inguru daude. Gehiago ere egon dira baina Zelanetik ateratako jokalariek 3 talde berri sortu dituzte, bat Beasainen eta Urretxun bi.

Dardo lehiaketetan aurrean ibiltzeko asko entrenatzen dute. Egunero bizpahiru ordu gutxienez aritzen dira dardoak botatzen eta asteburuetan Espainiar Estatuko ipar aldeko hainbat herrietan antolatzen diren txapelketetan parte hartzera joaten dira. Zenbaitetik etxean ere badute diana, "baina etxean aspertu egiten zara eta tabernan beti duzu norbait lehian aritu eta animatzeko. Errazagoa da aritzea", azaldu digu Jose Ramon Parrak.

Dardoak ondo botatzeko sekretu handirik ez dago Zelanekoan esanetan. Oinarrizko teknika jakin behar da baina garrantzitsuena buru hotza izatea eta orduak sartzea da.

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✖ Ordenadore salmenta
- ✖ Konponketa
- ✖ Informatika ikastaroak
- ✖ Etxeko zerbitzu teknikoa

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

Luis Mari Jauregi beasaindarra, beteranoetan, irabazle Jordaniako maratoin sailkapen orokorrean 15.a izan zen

New Yorkeko maratoin izan zen Luis Mari Jauregi beasaindarra 2000. urtean, beste bi korrikalarirekin batera. Orduan atera zen Jordaniako maratoina joateko plana. Iaz ordea, bertan behera gelditu zen lasterketa, Irakeko gerragatik. Aurten bai. Ametsa bete du, emaitza onarekin bete ere: 55 urtetik gorakoetan irabazle izan da Jauregi, eta sailkapen orokorrean, 15.

Abenduan hasi ziren Luis Mari, Reyes emaztea eta Mirren alaba Jordaniarako bidaia lotzen. Hasieran zailtasun ugari izan zituzten. Baina azkenean dena ondo atera zaie. Espainiako Enbaxada bidez lotu dute guztia. Charter hegazkinean, korrikalariz eta laguntzailez beteta joan ziren Ammanerraino.

Apirilaren 16an jokatu zen maratoina, goizeko 6,30etan Ammanetik abiatu eta Itsaso Hilean amaitzeko. Guztira, 42 kilometro pasatxo. Hasi itsasoaren mailatik 900 metrora, eta bukatu, itsasoaren mailatik 400 metro azpira. Hasierako 20 kilometroak al-



Luis Mari Jauregi, helmugara iritsitakoan.

dapa behera ziren. Hurrengo hamarrak, ordeka samarrak eta bukaerakoak, gorabehera ugarirekin. "Oso atzean hasi genuen lasterketa. Aldapa behera zenez, jendeak pasatu egiten gintuen baina penatu ikaragarria hartzen da aldapa behera. Aldapa beherako tartea bukatutakoan, jendea, erorita ikusi genuen, hanteko minez, itota. Aurretik egona zen eibartar batek gomendatu zidan lehenengo kilometroetan lasai joateko".

Eguraldia izan zuten etsai nagusia. Eguraldiak berak asko gogortu zuen maratoina. "Urtean hiru haize ekaitz izaten omen dira eta bat guri tokatu zitzaigun. 20 bat maratoin egingo nituen eta gogorrena hau izan da", aitortu beasaindarrek. "Basamortuko haizea zebilen eta parregarri ibili ginen. Azken bost kilometrora arte oso ondo ibili nintzen baina handik bukaerara, haizea hasi zen, hare ekaitza... bi metrora ere ez zen ikusten. Begitara jotzen

"20 bat maratoin egingo nituen eta gogorrena hau izan da"

zuen, gorputzera... denean mina. Jendea makurtuta, geldituta... ibili zen. Denbora aldetik ondo gindozen baina azkeneko kilometroetan denbora galdu genuen denok", azaldu digu Jauregik.

3 ordu eta 11 minutu behar izan zituen 42 kilometroak egiteko. 55 urtetik gorakoetan mailan irabazlea izan zen. 58 urteko beasaindar honek, sailkapen orokorrean, ez zuen postu makala egin: 15. iritsi zen helmugara.

500 bat korrikalarik parte hartu zuten lasterketan. 22 herrialde ezberdinetako jendea: alemaniarrek, amerikarrak, australiarrek, ingelesak, espainiarrek, irakiarrek, frantziarrak, siriarrek...

Antolakuntza oso ona aurkitu du Jauregik Jordanian. Bi kilometroka kontrol postuak zituzten eta abituailamentuak ere oso egoki. Datu bitxi bat eman digu Jauregik: 42 kilometroan ez zuten herri bakar bat ikusi. Ikusleak, tar-teka, bakarren bat.

ONGI ETORRI
taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



Lasterketaren amaieran, ikurrina ikusi zuen Jauregik, bergarar eta legazpiar laguntalde bat zegoen bertan.

Kopa maletan duela itzuli da Beasaina Jauregi. Sari banaketaren ondoren, izugarriko festa egin omen zuten, elkartu ziren hango eta hemen go euskaldunek.

Jordaniako maratoiak bazuen helburu bat: paralisi zerebrala duten gaixoentzako dirua biltzea.

Kilometro asko oinetan

Beasain eta inguruko bideetan beasaindarra korrika ikusteri ohituta gaude. 35 urte dira Jauregi korrika hasi zela. Aurretik, mendian ibiltzen zen. Inguruko maratoi eta

maratoi erdi gehienak eginak ditu. Urrutixeagokoak ere bai. Esate baterako, 2000. urtean, New Yorkeko maratoian parte hartu zuen. "Hura beste mundu bat da. Hara ezin da marka egitera joan, gozatze-
ra baizik". New York aldean ere emaitza ona lortu zuen beasaindarra: 45-55 urte bitartekoan mailan, bigarren gelditu baitzen, alemaniar baten atzetik. 54 urte zituen orduan beasaindarra. Jordaniako, alemaniarri Jauregik irabazi dio.

Helburu bat bete orduko, beste bat edo bi baditu buruan

Jordaniaz liluratuta

Horrelaxe itzuli dira Beasaina Luis Mari Jauregi eta bere familia. Apirilaren 13tik 21era bitartean izan ziren bertan eta maratoiaren aitzakian, Jordania ikusteko aukera ere izan dute. "Oso gomendagarria da. Ezberdina da, baina oso dotorea. Europartuta dago. Inguruko herrialdeetako dirua Jordaniako pilotzen denez, giroa lasai egotea komeni zaie. Hori bai, militarrek edozein lekutan ikus zitezkeen". Ormaiztegi-ko Irizar kooperatibak egindako autobusean ibili ziren hara eta hona. Gidetakoa bat, Joseba Iriondo ETBko kazetaria izan dute, Irak-eko gerra jarraitu duen kazetaria.

Oso jende irekia omen da. Europartuta dagoen herrialdea dela diote. Gazte gehienek belorik ez zuten erabiltzen. Kontrasteak hori bai, ikusi zituzten: "Itsaso Hilean batzuk jantzi baintzen ziren, praka bakero eta guzti eta beste batzuk bainujantzian".

Itsaso Hilaz esaten denaz ere egia omen da. "Itsaso Hilean ezin da zutik egon, atzera edo aurrera botatzen du. Ura epel-epela dago". Erlizioan ikasitako lekuak bertatik ezagutzeko aukera izan dutela esan digute.

Luis Mari Jauregik. Kanada aldean beste maratoi erdiren bat egingo luke aurten. Datoren urteari begira, berri, Saharako maratoia darabilki buruan.

Korrikaren aitzakian mundua ezagutzen ari da Jauregi eta bere familia. Korrikalarientzat 'Viajes sin fronteras' en bidez, bidaia bereziak antolatzen dira, korrika egin

eta ondoren herrialde ezberdinak ezagutuz turismoa egiteko. "Oso bidaia politak dira eta prezio oso onean ateratzen dira", esan du beasaindarra. Familiaren babesa ere badu Jauregik, eta airtortu digunez, "gorputzak agoantatzen duen bitartean jarraituko dut. Zortea izan dut, ez dut lesio bat bera ere izan".



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbkl. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28

☎ 943 88 14 13
Juan XXIII., 12
BEASAIN

ARANTZAZU
Jai zoriontsuak denoi!

ARRAINDEGIA

☎ 943 18 70 68 - 943 18 76 99
K. Nagusia, 20
IDIAZABAL

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04

Tel. 943 88 19 44

kale Nagusia 34 BEASAIN kale Nagusia 25 ORDIZIA



GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN
gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33

Legorretan Sega sariketa Almitza sega elkartearen eskutik

Gazteak sega mundura hurbiltzea eta sega hiritartzea helburu

Legorretako jaietan hasi eta Segurako festetan amaituko da Almitza sega elkarteak antolatu duen sega txikiko sega sariketa. Emakumezkoak eta federatu gabeko 30 urtetik beherako gizonezko segalariak erakarri nahi dituzte Almitzakoek. Horrekin batera, sega, baserritik hirira eraman nahi dute. Ikutz Garmendia beasaindarrak kontatu dizkigu sariketa edo erakustaldi honen xehetasunak.

Nork azkarrago, eta txukunago, ebaki izango da sega erakustaldi edo sariketa haue-tan neurtuko dena. Orain arte, Euskal Herrian, nork kilo gehiago ebaki neurtzen bazen ere, Europa aldean egiten den eredia ekarri nahi izan dute, iaz, Segurako Naziorteko se-



ga txapelketan egin zuten tan-keran.

Gazteei aukera ematea helburu dutenez, 30 urtez az-piko gizonezkoentzako eta orokorrean emakumezkoen-tzako dago irekita txapelketa-erakustaldia. "Ez da inor baz-tertzeagatik, gazteak animatu eta sega gaztetzegatik bai-zik", adierazi digu Ikutz Gar-mendiak.

Gizonezkoek 100 metro karratuko saila ebaki beharko dute eta emakumezkoak 50ekoa. Sega txikiarekin

lehiatu beharko dira segala-riak. Hau da, segak, 90 zenti-metroko luzera izan behar du gehienez altzairuzko xaflaren gainaldean. Inork sariketa hauetan parte hartu nahi izan-go balu, bi telefono zenbaki daude aukeran: 615788642 (Aloña) eta 609988019 (Ikutz).

Era honetako hiru saio prestatu ditu Almitza elkarte-ak. Laugarren bat kolokan dago, Iparraldean egingo lu-ketena. Goierrin bi saio izan-go dira: lehenengoa, maiatza-ren 23an Legorretan, Aizpe

baserriaren zelaietan, eta hi-rugarrena ekainaren amaiera aldean, Seguran. Tarteko saioa, Izaskunen jokatu da. Seguran, Sega eguna ospatu nahi dute.

Sariketari txapelketa ku-tsua kendu nahi izan diote. "Ez diogu txapelketa izena eman nahi. Txapelketa izena emanaz gero, hasieran, jen-dea atzeratu egiten baita. Se-gan jende bat badabil ikas-ten, beraz, aukera eman nahi zaie, erakustaldi bat eginez".

Hiritartu nahi den kirola

Almitza elkartearen ekimen honekin, "sega mundua jen-deari gerturatu nahi zaio. Herrikoia bihurtu nahi dugu sega mundua. Uste dugu, gal-tzen ari dela, oso zaila da norbait sega munduan sar-tzea. Kirol polita da baina se-ga zaila da, batez ere entre-natzeko. Entrenatzeko bela-rra behar da, eta mozteko sail polita. Oso zaila izaten da zelaiak bilatzea".

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA


☎ 943 88 98 48



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

lues rothers 
BEASAIN
Ondo pasa festetan!


MURGIL **pub**
 Zaldizurreta, 13
 ☎ 943 881 930
 BEASAIN

LURRAZPIKO JAIA !!

ARANA, 1
 ☎ 943 88 93 88 **BEASAIN**


ASTI **PUB**
 Zaldizurreta kalea ☎ 943 88 45 06 **BEASAIN**

Basakana

 Gilo aldia eta Pintxo gogorak
 Iturriotz, 11 beasain


 Pub **YUBER** Pub
 Loinazko Festak ospatzen
 Xuber zuekin!
 Zaldizurreta K. **BEASAIN**

ILUNTZE
BEASAIN

BARANDIARAN *Taberna*

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

J.M. Iturriotz, 7
 ☎ 943 88 92 10
BEASAIN

NAGASAKI
Taberna
Sartu zure giroan!
 ☎ 943 88 15 67 J. M. Iturriotz **BEASAIN**

OSINBELTZ
 ZALDIZURRETA, 1
BEASAIN
 ☎ 943 16 19 35

LOINATZ
Taberna
Jatetxea
 Bazkari, afari,
 ogitarteko, pintxoak
 ☎ 943 88 20 07 Nagusia, 27 **BEASAIN**



ARRANO
TABERNA

 Pintxo eta ogitartekoak
 Jaietan ere preso eta iheslariak gogoan
 Nagusia, 12 **BEASAIN**

Edaritegia **Jar** *Kafeategia*
Festa onak pasa!
 Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81
BEASAIN

JS



Goierri Lanbide Eskola
La granja auzoa, z/g
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 880 062
Faxa: 943 888 351
www.goierrieskola.org
bulegoa@goierrieskola.org

Goierri Lanbide Eskola

2004 - 05 Eskaintza

INGENIARITZA

Mondragon Unibertsitatearekin uztarturik
- Mekanikako Ingeniaritza Teknikoa (Lotura-sistemak).

BATXILLERGOA

Batxilergo Zientifiko - Teknikoa
Unibertsitatera eta goi mailako zikloetara zuzendurik

LANBIDE HASTAPENAK

DBH Gainditu ez arren, Lanbide baten oinarritzko ezaguerarekin lanean hasteko, eta erdi mailako zikloetara sartzeko aukerarekin.

LANBIDE-HEZIKETA ZIKLOAK

Goi mailako heziketa zikloak ondorengo arlo hauetan:

- Administrazioa eta Finantzak
- Eraikuntza metalikoak
- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Telekomunikazio eta informatika sistemak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Industria-ekipoen mantenimendua

Erdi mailako heziketa zikloak:

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

Irakaskuntzako hizkuntza nagusia EUSKARA izan arren (D eredua), ikasleak eleantzasunean hezitzeko, ingelesak eta gaztelaniak ere heziketa zikloetako zenbait modulutan lekua dute.

LAN PRAKTIKAK ETA LAN BURTSA
Laneratze tasa %95



AURRE INSKRIPZIO EPEAK

Ingeniaritza: Otsailak 2tik Ekainaren 18ra.
Batxilergoa: Maiatzaren 3tik 7ra.
Zikloak: Ekainaren 1etik 9ra.
Lanbide Hastapenak: Ekainaren 1etik 15era

Ate irekien eguna: maiatzak 22 goizeko 9,30etatik 12etara.



Kirola bi lerrotan



Jandrok agur esango dio futbolari

Ingalaterrako futbol denboraldia amaitzearekin batera, agur esango dio Alex Calvo Garcia 'Jandro' futbolariak. Scunthorpe United taldean aritu da azken zortzi urteetan. 32 urte ditu goierritarrak eta Ingalaterrara joan aurretik Eibarren aritu zen. Maiatzaren 10ean omenaldia jaso zuen goierritarrak.




Beasain aurrera

herriarteko pelota txapelketan

Gipuzkoako Herriarteko pelota txapelketan, Beasainek aurrera egiteko txartela eskuratu zuen, Ataun garaitu ondoren. Joaneko partiduan, Ataunen, 0-3 irabazi zuten beasaindarrek. Itzulera-koan, 2-1. Lazkao eta Aiaren aurkako partidutik irabazle denaren aurka lehiatuko dira orain beasaindarrek. Joaneko partiduan, lazkaotarrak nagusitu ziren.


Josune Bereziarturen proiektu berria

Ordizian bizi den eskalatzaileak proiektu berria dabilki buruan: Japoniako Flat Mountain mendian, 9a+ zailtasuneko bidea kateatzea, azaro erdialdean. Bereziartuk Yuji Hirayama eskalatzaile japoniarraren laguntza izango du, bere senarra den Rikar Otegirekin batera. Bidea eginenez gero, Bereziartu eskaladako aukeratuen taldean sartuko litzateke. Izan ere, 9a+ zailtasuneko bide bat lau eskalatzailek bakarrik kateatu baitute bakarrik. Lau horiek, gizonezkoak dira.



Iñaki Azurmendi Urrezko Aizkoratik kanpora

Arriarango aizkolariek ezin izan zuen Olasagasti mendean hartu. Finalerdietaraino iristea lortu du Azurmendik, baina azkenean, Olasagastiren aurrean agur esan behar izan dio Urrezko Aizkorari. Orain Euskadiko Txapelketan du burua jarrita.



Goierritarra etxean jasotzeko laguntzaile txartela

Txartel hau betetzen dutenei urtean 12 euro kobratuko zailak posta gastuak ordaintzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Tfnoa.: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**



F.M. 89.2

**EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN**

ZINEA

ORDIZIA:

'La Pasion de Cristo'.

Ostirala 21: 22:15.

Larunbata 22: 19:30 - 22:15.

Igandea 23: 19:30 - 22:15.

Astlehena 24: 19:30 - 22:15.

'Euriaren seme-alabak'.

Igandea 23: 16:45.

mahaingurua

ATAUN:

Ekainak 2, Eskupilotaren inguruan mahai ingurua. Hizlariak: Julian Retegi, Xabier Euzkitze, Abel Barriola eta Joxean Tolosa. Moderatzailea: Fermin Aramendi. 19:30ean, Aizkoate elkarte-an.

musika

ATAUN:

Maiatzak 22, Gipuzkoako Euskal Kantu txapelketa, Herri Antzokian, 22:00etan.

Maiatzak 29, Oskorri musika taldearen 'The pub ibiltaria', Herri Antzokian, 22:00etan. Sarrera: 5 euro.

BEASAIN:

Maiatzak 21, Sukan taldea, Loinazko San Martin plazan, 20:30ean.

Maiatzak 21, Rock kontzertua Gipuzkoa plazan, txosnetan, 22:30ean.

Maiatzak 22, Euskadi Gazteko Joseina Etxebarriarekin disko festa, 00:00etan, Bideluze plazan.

Maiatzak 22, Nafar jotn jaialdia, 'Raices norteñas', Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 23, 33 bira minutuko, Loinazko San Martin plazaren azpian, 23:30ean.

Maiatzak 24, Egan taldea, 19:00etan eta 23:00etan, Bideluze plazan.

Maiatzak 29, Umeentzako dantzaldi girotua Detraka taldearen Zirkus Mirkus ikuskizunarekin, Joan Iturralde plazan, 19:00etan.

Maiatzak 29, Francisco Rivelles eta bere mariatxia, 22:30ean, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 29, Ataca orkestarekin dantzaldia Loinazko San Martin plazan.

ORDIZIA:

Maiatzak 21, Poltsikoko ikuskizunak: Karlos Gimeñez piano jolearen '12 gelto-ki' lanaren aurkezpina, 22:30ean, Barrenan.

Maiatzak 28, Poltsikoko ikuskizunak. Kafe kontzertua: Jorge Sanchez (gitarra eta ahotsa) eta Eva Niño (biolontxelo) bikoteak 'El espejo de tu vida' musika ikusizuna aurkeztuko du, Barrenan, 22:30ean.

ZEGAMA:

Maiatzak 24, Tobera Musika Eskolako ikasleen gitarra entzunaldia, 18:00etan, Kutur etxean.

ikusentzunekoa

ATAUN:

Maiatzak 27, 'Mundu bizikletaz' ikusentzunekoa, Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okaberen eskutik, 19:30ean, San Gregorioko elkargunean.

bertsoak

BEASAIN:

Maiatzak 21, Gipuzkoako Eskolarteko bertsolari txapelketa, 16:00etan, Usurbe antzokian.

Maiatzak 25, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia, 12:45ean eta 19:30ean, Loinazko San Martin plazan.

antzerkia

BEASAIN:

Maiatzak 23, Kale antzerkia: Les Doryphores. Gernika pasealekuan, 19:30ean.

Maiatzak 29, Kale antzerkia: Markeliñe taldearen DSO, Zaldizurreta plazan, 22:00etan.

2004ko UDA
maizpide
I a z k a o euskaltegia - barnetegia
XXX. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

✓ URRATS GUZTIAK

Alfabetatzen
Hizkuntz eskakizunak
Alfabetatze teknikoa
Sakontzen

HABEren dirulaguntzaz.

Eman izena

UZTAILA: 06-28/07-23
ABUZTUA: 08-2/08-27
IRAILA: 09-6/09-30

✓ 6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASAK BAKARRIK

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 943 88 92 31 Faxa: 943 88 92 32
e-posta: lazkaio@maizpide.com www.maizpide.com

Karlos Gimenez, Ordizian

Gaur, maiatzak 21, gaueko 10etan, Barrena Kultur etxean, Karlos Gimenez pianojolearen kontzertua entzuteko aukera izango da. Gimenezek bere azken lana, '12 geltoki', aurkeztuko du. Poltsikoko ikuskitunak programa estreintuko du Gimenezek.



dantza

BEASAIN:

Maiatzak 21, Latindar dantzen eta koreografia modernoaren erakustaldia, Natalia eta Fermin dantza taldearekin, Bideluze plazan, 23:00etan.

Maiatzak 23, Beasaingo IV. Dantza topaketak. 12:30ean, Gernika pasealekuan, 12:30ean eta Loinazko San Martin plazan, 18:30ean.

Maiatzak 25, 12:00etan haurren sokadantza eta 19:00etan helduena. Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 30, VIII. Dantza libreko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Maiatzaren 7tik 16ra, 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Maiatzaren 21etik ekainaren 18ra, Iñaki Olazabalen eskultura erakusketa, Barrenan.

mendi irteera

ORDIZIA:

Maiatzak 23, Ordiziako Mendizaleak: Aizkorri.

Maiatzak 30, Ordiziako Mendizaleak: Idiazabal-Etxegarate.



Entsaioaren aurretik harrapatu genituen antzerki taldeko aktoreak eta zuzendaria.

Txindoki-Alkartasuna Institutuko ikasle-irakasleen antzezlanak

Jardiel Poncelaren '4 corazones con freno y marcha atrás' antzelazlana prestatzen ari dira Txindoki-Alkartasuna Institutuko antzerki tailerreko aktoreak. Irakasleek eta 16 eta 18 urte bitateko ikasleek osatzen dute taldea. 18 bat guztira. Guztiak ere, Fran Garcíaren zuzendaritzapean aritzen dira.

Antzezle nagusiak honakoak izango dira: Maitane Zurutuza (Balentina), Irene Rojo (Hortensia), Aitor Goenaga (Ricardo), Jose Mari Garai (Emiliano) eta Jose Javier Huerta (Bremón).

Ikastetxetik herrira eramango dute beraien lana ekainaren 3an eta 4an. Ostegunean, 3an, DBHko ikasleei eskainiko die eta 4an, ostiralean, arratsaldeko 7,30etan, Usurbe Antzokian, herritar guztiei. 5 euro kostako da sarrera.

5. urtea da aurtengoa eskolaz kanpoko orduetan antzerki tailerra dutela Txindoki-Alkartasuna Institutuan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Maiatzak 22-23: Jauregi (Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 161949.

Maiatzak 29-30: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880232.

Zunzunegi
0inetakoak
Hirigoien, 8A
943 087 913
LAZKAO

ikaskide Eman buelta kurtsoari!
irakaskuntza zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
✓ Azken azterketak maila guztiak
✓ Errekuperazioak ekaina - uztaila - iraila
Goierriko akademia integrala hezkuntzako profesionalen esku

ikasteknik
psikopedagogia zerbitzuak
Joan Iturralde, 5
943 160 120
Beasain
Ikasketa oztupoak
Diagnosia eta tratamendua
• Test-ak, Frogak
• Tailerrak

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Lazkaon. Pisu altua, bista ederrekin. 80 m². 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta despentsa. Dena berri-tua. 183.000 euro. 943888564.

➡ Ordiziako Altamira auzoan 80 m²ko pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela, trastalekua eta komuna. Erdi berri-tua. Prezio onean. 943000190. 22:00etatik aurrera deitu.

errentan eman

➡ Idiazabalen pisua alokatzen da. Guztiz ekipatua. 645723316.

➡ Lazkaon, etxebizitza adosatua alokatzen da. Garajea eta lorategia. 636333966.

➡ Conilen apartamentua alokatzen da ekainetik aurrera. Jantzia. Hondartzaren ondoan. 680442668.

➡ Saloun apartamentua alokatzen da, itsaso-aren ondoan. Irailetik aurrera. Jantzia. Aire egokitua. Igerilekua eta garajea. 629989899 - 943814238.

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urederraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

elkarbanatzeko

➡ Durangon, alokatu-tako pisua osatzeko pertsona bat behar da. 653748914.

Lursailak

erosi

➡ Goierrin 4.000-5.000 metroko lursaila erosiko nuke. 616698236.

Garajeak

salgai

➡ Idiazabalen garajea salgai, Kale Nagusian. 665746707.

errentan eman

➡ Beasainen, igerilekudun etxaldean, garaje itxia alokatzen da. 943187768. 20:00etatik aurrera deitu.

Lokalak

errentan eman

➡ Beasainen 133 m²-ko lokal komertziala alokatzen da. Erdigunean. Edozein negoziotarako egokia. 615787097.

Ibilgailuak

salgai

➡ Ford Escort diesela salgai. 110.000 km. 629415611.

➡ Seat Leon FRa salgai. 17ko llantak. Tetxu solarra eta ESParekin. Urte eta erdi. 2.800.000 pezetan. 678696136.

➡ Peugeot 205, diesela, salgai. 606015394.

➡ Heriotzagatik, Dae-woo Nubira autoa salgai. Berri berria, 3.500 km. 657707564.

➡ Garraio tarjeta nazionala eta 3.500 kg baino gutxiagoko kargarekin kamioneta salgai. Bolketea ere badu. 657792141 / 651701690.

➡ 2000ko Volkswagen Bora TDI-a salgai, 115 zaldi, hi line. Llantak: 1000 miglia eta extra ugarirekin. Berria bezala. 609411811.

➡ Opel Astra G, 1.8-16v salgai. Extrak. 1999. urtekoa. 5.900 euro. Negoziagarriak. 607658847. Jose Luis.

➡ Seat Alhambra 1.9 Tdi 110 cv salgai. 1999 urtekoa. Gris metalizatua. 7 eserleku. Kristal ilunak. 615700511.

➡ Volkswagen Transporter 1.9 salgai. Gasolina. Lo egiteko ekipatua. 9438811053 - 696578871.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA

Joxi

Iturgintza - Berogintza - Gasa

Carrefour merkatalgunea

Tel. - faxa: 943 88 19 87 - 676 178 488
OLABERRIA

ZUZENKI
A H O L K U L A R I T Z A

Tel/Faxa: 943 162 393
e.posta: zuzenki@euskalnet.net
Elosegi, 16 LAZKAO

Abokatuak
Enpresen asesoria
eta gestioa

e txekin

www.txekin.net

Animaliak

salgai

➡ 5 txakurkume salgai. Setter irlandes eta hispanier nahasketak. Arrak. 943885665 - 943884547.

➡ Pertsar katakumeak salgai. Prezio onean. 680442668.

➡ Westy arrazako txakurkumeak salgai. Apirilaren 19an jaioak. 630614924.

erosi

➡ 2 edo 3 ponny erosiko nituzke. Txikiak eta mantsoak. Emeak. 943161945.

Bestelakoak

salgai

➡ Akazi egurrez, eskuz eginiko hesolak salgai. 689700647.

➡ Sutarako egurra salgai. 2 metrora moztuta. 20:00etatik aurrera deitu. 943880905.

➡ Idazmakina elektriko salgai. Olivetti Et compact 65 modeloa. Pantaila bisualarekin. Ia berria. 678941764.

➡ Ordenagailuarentzako mahaia salgai. 30 euro. 943085206.

➡ Virutex A-92 zepiltoa salgai. 1100 batio. 943085206.

➡ Jangelako mahaia salgai. 2,46 x 0,92. 619751844. 18:00etatik aurrera deitu.

➡ Weftafalia markako erremolke itxia salgai. 3,60 luze, 1,50 zabal eta 2 metro altueran. Egoera oso onean. Bi urte. 1.600 kilo artekoa. Ekainera arte aseguru ordainduta. Motoentzat egokia. 665701775. Xabi.

➡ Autoarentzako elur-retrako kateak salgai. Spiker-Spider markakoa. 943085206.

Lana

eskaintzak

➡ Emakumezkoa prest dago adineko pertsonak eta gaixoak zaintzeko. Gauez ere bai. Autoa daukat. 605724457.

➡ 21 urteko neska batetik klase partikularrak emateko prest dago. 652715314.

➡ 26 urteko neska prest dago, Beasain aldean, etxeak, atariak... garbitzeko, edo eta haurrak zaintzeko. 687374559.

➡ 21 urteko ikasle batetik lan egin nahi du zuzailan eta abuztuan. Haurrak zaintzen, tabernan edo antzerakoetan. 652715314.

➡ 21 urteko neska, informatikako ezagupenekin eskaintzen da haurrei klaseak emateko edota zaintzeko. Garbiketarako ere bai. 679556586.

➡ Emakumea prest dago adineko pertsonak zaintzen, garbiketan edo mezularitzan lan egiteko. Orduka edo egun osoz. Ibilgailua daukat. 943085508 - 678781985.

➡ 19 urteko mutila prest dago adineko pertsonak zaintzeko, garbiketan edo beste edozeretan lan egiteko. 678781986 - 943085508. Arratsaldetan deitu.

eskaerak

➡ Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Esperientziaduna bada hobe. 943880044.

➡ Ile apaindegirako ile apaintzaile bat behar da, arratsaldeetarako. Euskalduna. Ibilgailuarekin. Iluntzetan deitu. 639962850.

➡ Jatetxe baterako zerbitzaria behar da. 610012737. Jesus Mari.

URBIETA

Erretegia

Iñigo Sanchez Paredes sukaldaria

943 18 00 19 - 665 73 11 13

Elbarrena, 72

ATAUN

Karta

Enpresa menuak

Eguneko menuak

Asteburuko menuak

Plater konbinatuak

Astelehena atseden eguna

KORO


FISIOTERAPIA ERREABILITAZIOA

Eskatu ordua: 609 601 310 - 943 087 234
Sanperio kalea, 5-behea ORDIZIA

ATAUN

Etxebizitza **bifamiliarra**
eraikitza goaz
450 m²-ko **lorategiarekin**

943 161 032
652 775 741



URRATS AKADEMIA

UNIBERTSITATE MAILA:

ekonomia, administrazioa, teknologia, marrazketa, fisika, matematika, kimika, latina, biologia, ingenieritza...

Elosegi, 16 - 3. esk.

LAZKAO

Tel.: 670 562 800

Goizeko 9etatik
gaueko 9etara

LEHEN HEZKUNTZA

DBH

BATXILERGOA

ZIKLOAK



Alkartasuna Lizeoko ikasleak 1982an

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Lierni Mariazkurrena, Ihart Aspiunza, Amaia Albisu, Jaione Barandiaran, Lorea Iparragirre, Lurdes Altuna (irakaslea), Uxua Barandiaran, Idoia Aiestaran, Ainhua Hierro, Izaskun Apaolaza, Aitziber Manjon, Idoia Girado eta Lide Aristegi

Erdiko ilaran: Jorge Insausti, Iban Paredes, Mikel Jauregi, Igor Alustiza, Naiara Kerejeta, Arkaitz Izagirre, Aitor Irazustabarrena, Aitor Erguin eta Mikel Alvarez.

Beheko ilaran: Amaia Aldanondo, Mikel Larrañaga, Naiara Gomez, Mikel Mariazkurrena, Jon Ander Deba, Josu Arizkorreta eta Amaia Jauregi.

IRUDI - Foto, S.L.
Javier Fernández Sánchez
Orain helbide berrian!
Beherapen bereziak
Nafarroa etorbidea, 1 Etxe-ubi
BEASAIN Tel./Faxa: 943 888 100

IGARATZ
ILEAPAINDEGIA
Ileapaindegia
Depilazioa
Aurpegiko tratamenduak
Manikura eta pedikura
Solariumak
Makilajea
Jai zoriontsuak beasaindar guztioi!
☎ 943 883 180 Nafarroa Etorbidea, 6 BEASAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Etxeko
Banatzailea
San Inazio, 15 ☎ 943 88 12 82 BEASAIN

URRAKI
BIDAIAK
OVER Taldea
Festa zoriontsuak opa dizkizuegu beasaindar guztioi!
Kale Nagusia 42, behea
Tel./Faxa: 943 80 40 15
BEASAIN
urrakibidai@telefonica.net



Goi Mailako Tolosaldea L.H. Institutua



ESK A I N T Z A A K A D E M I K O A

ARAUTUA

Goi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazio bidezko produkzioa.
- Eraikin eta prozesu-instalazioen mantenimendua eta jartzea.
- Metal-eraikuntza.
- Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoak.
- Administrazio eta finantzak.
- Informatika-sistemen administrazioa.

Erdi mailako zikloak (euskaraz)

- Mekanizazioa.
- Soldadura eta galdaragintza.
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.

EZ ARAUTUA

- Langileen etengabeko formakuntza.
Kualifikazio profesional sistemako ikastaroak. Doan.
Mekanika, soldadura, elektrizitatea, informatika, administrazioa.
- Langabetuen formakuntza.

Telefonoak: 943 651 147 (Josune)
943 650 664

E-mail: idadzkaritza@tolosaldea.com
Webgunea: www.tolosaldea.com

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 9ra

MATRIKULA EPEA

Uztailaren 1etik 7ra

INSTITUTU HONEN BIDEZ IKASLEEK LANA AURKITZEN DUTE

- Iaz Ikasketa Teknikoak amaitu zituzten ikasleetatik %100 jadanik lanean ari dira.
- Lankidetzak hitzarmenak 150 enpresekin.
- 2 urtetan ikasleen lan egoeraren jarraipena egiteko konpromezu hartzen dugu.

**Ikastetxe honetan kalitatea ez da moda bat,
gauzak hobeki egiteko era baizik**

8 urte ISO 9002 kalitate sistemarekin eta
3 urte zilarrezko Qrekin irakaskuntza hobetzen

Migdaläla

moda eta osagaietan aholkulari
udaberria-uda 2004

